

**TXABI ETXEBARRIETAREN 1968ko
EKAINAREN 7ko HERIOTZARI BURUZKO
TXOSTENA**

Aranzadi Zientzia Elkarteak / Sociedad de Ciencias Aranzadi
Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco



Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Metodologia	7
3. Etxebarrieta kasua testuinguruan jartzea: diktadura eta errepresio frankista 1960az geroztik	11
4. Legedia eta errepresio-moduak	17
5. Etxebarrieta kasuaren kontakizun faktikoa iturrien arabera	27
6. Lekukoak eta lekukotzak	37
7. Etxebarrieta kasuaren azterketa juridikoa	43
7. 1.- Bigarren artikuluko lehen sektorearen azterketa: bizitzeko eskubidearen urraketa.	
7.1.1.- Lehenengo hipotesia: gobernuko agenteen indarraren erabilera legitimoa	
7.1.2.- Bigarren hipotesia: epaiz kanpoko exekuzioa.	
7.1.3.- Bi hipotesien balioztatzea: epaiz kanpoko exekuzioaren aukera.	
7.2.- Bigarren artikuluko bigarren sektorearen azterketa: Txabi Etxebarrietaren heriotzari buruzko ikerketa judizial eraginkor bat egitearen betebeharrak prozesala.	
8. Ondorioak eta gomendioak	77
9. Iturriak eta Bibliografia	81

ERANSKINAK 95

I. eranskina

II. eranskina

III. eranskina

1. Sarrera

2015. urtetik Aranzadi Zientzia Elkarteak Tolosako Udalerrian egiten ari den ikerketa historikoaren proiektuan dauka txosten honek jatorria.

Zehazki esanda, 2020az geroztik, aipatu elkarteko historialari eta kriminologoak lanean ari dira, 1960tik aurrera Tolosan -eta tolosarren aurka beste herri batzuetan- izandako motibazio politikoko biolentziaren eta giza eskubideen urraketa larrien biktimak identifikatzen. Era berean, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak "nahikoa argitu gabeko kasuak"¹ bezala hartu dituen heriotzak argitzeko helburua dauka. Baina, gainera, Francisco Javier Etxebarrieta Ortizen (Txabi Etxebarrieta bezala ezagutzen denaren) senideak, ikerketa honen jakitun, Aranzadiko lan-taldearekin harremanetan jarri ziren 2018an, eta hildakoaren bizitzarekin amaitu zuten gertaeren bilakaera azaltzeko moduko ikerketa sakona egiteko eskatu zieten.

Txostena oinarritzko lau multzotan egituratua dago: batetik, testuinguru historikoa eta diktadura frankistaren errepresio-moduak; bestetik, Txabi Etxebarrieta Ortizen heriotzari buruzko azterketa faktikoa kontsultatutako iturrien eta testigantzetan oinarrituta; hirugarrenik, azterketa juridiko bat, eta amaitzeko, ondorio eta gomendio batzuk. Era berean, gertatutakoaren hipotesiekin erlazionatutako irudi grafiko batzuk egin ditugu, eta txosten honi eranskin gisa gehitu.

¹ Eusko Jaurlaritzak, 2014, 83-124 or.

Beraz, azterketa honen helburu nagusia da gertaera horiei buruz eskura daukagun informazioa eguneratzea eta, ahal den neurrian, Txabi Etxebarrietaren heriotza gertatu zeneko zirkunstantziak eta zergatiak egiaztatzea. Jarraian, kasutik eratorritako eztabaiden azterketa juridiko bat emateko, aurkezten zaizkigun gertaera objektiboei buruzkoa.

Azkenik, dokumentu hau Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UPV/EHUko UNESCO Katedrako ikerlariek egina izan da.

Zehazki esanda, dokumentu hau Javier Buces Cabellok (Aranzadi ZE-ko ikerlaria eta Historian doktorea), Leire Padilla Lópezek (Aranzadi ZE-ko ikerlaria eta kriminologoa) eta Eneko Etxeberria Bereziartuak (EHUko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea eta Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrako kidea) atondu dute.

2. Metodologia

Txosten hau egiteko, kasuari buruzko ikerketa historiko bat eta azterketa juridiko bat egin dira urratuak izan zitezkeen giza eskubideen urraketa larrien ikuspuntutik.

Ikerketa historikoa egiteko, hainbat artxibotako agiriak kontsultatu dira; batez ere, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa (GPAH) eta Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa (gaztelaniaz AIMN). Lazkaoko Beneditarren Fundazioan (LBF) ikerketa-gaiari buruz dauden agiriak ere aztertu dira.

Beraz, ezinbestekoa izan da lehen mailako iturriak (artxiboetako dokumentuak) aztertu ahal izatea. Hala eta guztiz ere, lehen mailako iturri -edo iturri ofizial-horietara heltzeko zailtasunak aipatu behar dira, batez ere, legezkotasunaren ondorioz; duela gutxi, arazo hori jo du Emilio Majuelo-k indarkeria politikoaren inguruko ekoizpen historiografiko urriaren arrazoi nagusitzat². Gure kasuari dagokionez, mugatuta izan dugu 16/68 auzia kontsultatzea; izan ere, ez zaigu utzi espediente osoa kontsultatzen AIMNeri eginiko hainbat eskaeratan.

Orokorrean, dokumentu-funtsak kontsultatzeko murrizketei dagokionez, eragozpen nagusia legediak berak sortzen du, datu pertsonalak babesteko eskubidearen inguruan. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 11. artikuluan, "Datuen Komunikazioa" izenekoan, zera esaten da:

"1. Tratamenduaren objektu diren izaera pertsonaleko datuak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik

² Majuelo, 2020, 283-296 or.

datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko; interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna eman beharko du”³.

Dena den, adostasun beharraren arau orokorrak 11. artikulua 2. puntuan dauzka salbuespenak, eta gure kasurako a) atalekoa da mahaigaineratzea komeni dena:

“a) Lagapena lege batean onartua dagoenean”⁴.

Beraz, eta bizirik dauden pertsona fisikoei dagokionez, interesdunen adostasuna izan beharko da, lagapena lege batean onartua ez badago behintzat. Zentzu horretan, Espainiako Ondare Historikoaren Legeak 57.1 artikuluan arautzen du dokumentu horien kontsulta:

“c) Pertsonen segurtasuna, edo ohorea, pertsonen bizitza pribatuaren eta familiaren intimitatea, eta norberaren irudia eragin dezaketen eta izaera poliziala, prozesala, klinikoa edo bestelako izaera duten datu pertsonalak biltzen dituzten dokumentuak ezin izango dira publikoki kontsultatu, eragindako pertsonak berariazko baimenik ematen ez badute, edo eragindako pertsona hil eta hogeita bost urte igaro arte, betiere hil zen eguna ezagutzen bada, eta ezagutzen ez bada, dokumentuak kontsultatu ahal izateko berrogeita hamar urte igaro beharko dira, dokumentuko datatik hasita”...⁵.

Bestalde, Txabi Etxebarrietaren 1968ko ekainaren 7ko heriotzari buruzko argitalpenak eta ikus-entzunezko ekoizpenak aztertuta dira. Azken urteetan, batez ere 2018tik

³ 3/2018 Lege Organikoa.

⁴ *Ibidem*.

⁵ 16/1985 Legea.

aurrera, hazten joan den bibliografia zabal hori, hau da, aipatutako legedian zehaztutako 50 urteak igaro eta dokumentu-funtsak kontsultatzeko aukera hasi zenetik aurrera.

Gainera, gertaeren ikerketa propioa egin dugu eta elkarrizketa batzuk egin dizkiegu senideei eta gertatutakoaren lekukoei; horri esker, kasua aztertzeke beste faktore bat sartu ahal izan dugu.

Azkenik, azterketa juridikoari dagokionez, nahiz eta txosten honen helburua ez izan behin betikoz epaitzea -gaiari buruzko eskumena eta kontraesanak zehazteko gaitasuna duten beste erakunde batzuei dagokie hori-, azterketa bat egin dugu zalantzarik gabekotzat eta egiazkotzat jotzen diren elementuak oinarri hartuta. Horrela, ahal den neurrian, gure balorazio juridikoa emango dugu, nazioarteko estandarrak, Giza Eskubideen Nazioarteko Hitzarmenaren (GENH) edukia eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) 2. artikuluari buruz egiten duen interpretazioa oinarri hartuta; eta ondorioren batera iristea posible balitz, kasu honetan sortzen diren kontraesan juridikoak argitzen saiatuko ginateke.

*3. Etxebarrieta kasua testuinguruan jartzea:
diktadura eta errepresio frankista 1960az
geroztik*

Diktadura frankistan zehar errepresioak izaera "erabat planifikatua, sistematikoa eta instituzionalizatua izan zuen, bere baitan helburu bihurtu zen arte"⁶. Etsaiaren ezabatze fisiko eta sinbolikoa suposatu zuen⁷, 1948tik Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasotako eskubide politiko, zibil, sozial, ekonomiko eta kulturalen ezabapenez gain⁸. Ezabatze horren ondorioz, 1940ko hamarkadaren erdialdera, erregimenaren oposizioa osatzen zutenen zati handi bat erbestean, espetxean edo lurpean zegoen.⁹ Beraz, frankismoaren oposizioa, matxinadaren aurka agertutako

⁶ Juliá, 1999, 26. or.

⁷ Baby, 2018, 47. or.

⁸ Babiano et alii, 2018, 8. or.

⁹ Euskal kasuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 1938an eginiko txosten baten arabera, 120.000 euskaldunek ihes egin zuten bere etxeetatik, 30.050 espetxeratuta zeuden, beste 30.000 kontzentrazio-esparruetan eta langile-batailoietan, eta 13.853 fusilatutak izan ziren gerra-kontseiluen ostean edo epaiz kanpo: "Datos numéricos de la persecución en Euzkadi", in M. Aizpuru (zuz.), 2007, 91. or. Gregorio Arrien eta Iñaki Goioanak diote 150.115 izan zirela Frantzian, 1938tik aurrera, erbesteratutakoak: G. Arrien eta I. Goioana, 2002, 78. or. Espainiar naziotasuneko herritar guztiak kontuan hartuta, Javier Rodrigok dio, 1939ko otsaileko datuen arabera, Kataluniatik 440.000 pertsona erbesteratu zirela Frantzian: J. Rodrigo, 2005, 173. or. Administrazioaren Artxibo Nagusiko zigortuen fitxategiari erreferentzia eginez, Iñaki Egañak dio 14.000 euskaldun atxilotu zituztela 1938 eta 1958 artean: I. Egaña, 2011, 104. or. Estatu mailan, Justizia Ministerioaren esanetan 1940ko urtarrilaren leian, 270.719 pertsonak osatzen zuten Espainiako zigortuen populazioa. 1944an, 74.000 preso izatera jaitsi zen kopurua: M. Capellà eta D. Ginard (koord.), 2009. Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta Gogora Institutuak -Aranzadi Zientzia Elkartearen eta Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedraren partaidetzarekin- berriki argitaratutako ikerketa batean esaten denez, 1.363 zibil (une horretan Bizkaia, Araba edo Gipuzkoan zeuden herritar edo pertsonak) hil ziren abiazio frankistak edo haren aliatuek eginiko bonbardaketetan (biktimak abiazio errepublikanoari egotzi dakizkiokeen "ohiz kanpoko kasuetan" izan ezik). 1.130 epaiz kanpo fusilatutak izan ziren, 895 exekutatutak izan ziren gerra-kontseiluetan heriotza-zigorra kondenatutak izan ostean, eta 2.252 espetxean hil ziren: Gogora, 2019, 20-29 or.

eragile politikoek ordezkatzeko zutena, ia guztiz desmobilizatua geratu zen.

Geroago, 1950eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Espainiako diktadurak zenbait mugimendu politiko hasi zituen, erregimena babesteko. Egokitzen hori erraztu egin zuten nazioarteko aldaketa koiunturalek, hau da, mendebaldeko potentzia handien etsaia komunismoa eta Sobiet Batasuna izatea eragin zutenek. Horren harira, aipatzekoa da Estatu espainiarra 1955ean NBE-n sartu izana, eta, azken batean, nazioarteko onarpen etengabea, aldaketa politikorako edozein aukera ameskeria bihurtzen zuena.

Arrazoi horiengatik, diktadurak urte batzuk zeramatzan egonkortasuna harro agertuz, nazioarte ezegonkorren eta oposizio ahulduaren aurrean bakea erakutsiz. 1945erako, *Unidad* egunkari falangistak urte hartako lehen alea izenburu honekin zabaldu zuen "Y en España, paz (Eta Espainian, bakea)"¹⁰; erregimenak eslogan hori berreskuratu zuen 1964an, gerraren amaieraren 25. urteurrena ospatzeko¹¹. Hala ere, 1964 jada ez zen 1945; eta diktadura saiatzen zen arren, bide ofizialen bitartez, guztia kontrolpean eta seguru zuenaren itxura ematen, bigarren frankismo moduan ezagutzen den aldiaren (1959-1975) eta, batez ere, frankismo berantiarren (1968-1975), ezaugarri nagusia izan zen Estatu espainiarrak espazio publikoan gero eta garrantzia handiagoa izango zuten talde aurkarien giza eskubideak larri eta sistematikoki urratu zituela¹².

Euskal esparruari dagokionez, 60ko hamarkadakoak "euskal gizarteak diktadurarekin hautsi zueneko urteak izan ziren"¹³.

¹⁰ *Unidad*, 1945/1/1.

¹¹ Preston, 1994, 883-889 or.

¹² Babiano, 2018, 9. or.

¹³ Fusi, 2018, 66. or.

Hego Euskal Herria¹⁴, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoa, erregimenaren aurkako gune aktiboenetakoa bilakatu zen, gehienbat, bi faktore hauen arteko erlazioagatik. Lehenik eta behin, lurralde industrializatua zen, eta horrek langile-klasea mobilizatzea ekarri zuen bizi- eta lan-baldintzak hobetzea eskatuz, hau da, justizia edo "askapen soziala" eskatuz¹⁵. Aldi berean, euskal herriak bere izatearen kontzientzia berreskuratu zuen, bere hizkuntza, bere nortasuna, eta azken finean bere "askapen nazionala"¹⁶ babesten edo berreskuratzen saiatzeko.

Bi faktore horiek kontuan hartuta, 1960tik aurrera, batez ere ETA izan zen biak sintetizatzeko gai, eta horrela, Frankismoari aurka egiten ziotenen artean mobilizazio handiena eragiten zuena izatea Estatu espainiarrean¹⁷. Hainbatek nabarmendu dute bat-egite hori; besteak beste, José Sainz González erregimeneko agenteak (1968ko urriaz geroztik, Donostiako Brigada Politiko-Sozialeko buruzagia) "bi birusak", "separatista" eta "progresismoarena" aipatzean, eta, Gipuzkoari buruz ari delarik, "probintzia honetan bat datoz"¹⁸ esaten zuenean; Jean-Paul Sartre filosofoa, Pedro Ibarra Güell Zientzia Politikoetako katedratikoa eta abokatuak, Pau Casanellas historialaria, Mario Onaindia ETako garai bateko burua eta Eusko Jaurlaritzak¹⁹.

¹⁴ Euskal Herria izendapena Euskaltzaindiak 2004tik proposatutakoa da: "Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa batera izendatzeko erabil bedi Euskal Herria izena". https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0139.pdf

¹⁵ Garmendia, 1983, 2. liburukia, 116. or.

¹⁶ Jauregui, 2000, 248. or.

¹⁷ Buces, 2021.

¹⁸ Sainz, 1993, 221. or.

¹⁹ Jean Paul Sartre-ren hitzaurrea in G. Halimi, 1972, 7-29 or. P. Casanellas, 2014, 30. or. P. Ibarra Güell, 1987, 158. or. Mario Onaindiak, 2001ean *La Vanguardia*-rentzat eginiko elkarriketa batean, ondokoa zioen ETako kide izan zeneko garaiari buruz: "Bi gauza eskaintzen zizkigun: egunero borroka egiteko aukera, ez maiatzaren lean bakarrik;

Aurkarien hazkunde hori zela eta, hasierako gerraosteko urterik gogorrenetako errepresio zuzena berraktibatu zuen erregimen diktatorialak, zigor-kodean aldaketak eginez, gerrako legedi baten bidez, auzitegi militarrek eta salbuespeneko ohikoek esku-hartuz salbuespen-egoeraz baliatuz eta gorputz polizialek (Poliziaren Kidego Nagusia, Polizia Armatua eta Guardia Zibila) indarra erabiliz. Era berean, 1970etik aurrera, modu orokortuan jarduten hasi ziren eskuin muturreko taldeak eta parapolizialak (1975etik aurrera askotan jardun zutelarik); beraz, ordutik aurrerako ere onargarria izan daiteke ezker haustaileak Trantsizio garaian salatutako, eta Gonzalo Wilhelmi-k *Romper el consenso. La izquierda radical en la Transición española (1975-1982)* liburuan aipatutako, oinarritzko hiru errepresio-agerpenetan banatzea: Poliziaren errepresioa, Estatuaren terrorismoa eta kontrolik gabeko terrorismoa edo eskuin muturreko taldeena²⁰.

Hala ere, 1960ko hamarkadatik aurrera, Estatu frankistaren errepresio-aparatuek berriz ere orokortu egin zituzten Hego Euskal Herrian "gorri", "gorri separatista" eta "euskaldun separatista" salaketak frogatu eta ukaezin modura²¹, dozenaka hildako eta ehunka torturatu eragin zituen errepresio-jarduera batean. 31/69 auziko (Burgosko prozesua izenarekin ezagutzen dena) legelari defentsarietako bat izandako José Antonio Etxebarrietaren hitzetan, 1960tik aurrera Euskal

eta langile-mugimendua askatasun nazionalekin lotzeko aukera" (La Vanguardia, 2001eko apirilaren 22an). Eusko Jaurlaritza, "ETA euskal testuinguru soziopolitikoan: 1960-2018ko sintesi historikoa", in *Herenegun! Unitate didaktikoa. Memoria Hurbilari dagokion aldia (1960-2018)* DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako Historia irakasgaiaren sartzeko proposamena. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza, 2018.

²⁰ Wihelmi, 2016, 377. or.

²¹ Buces et al., 2018.

Herrian Estatuko errepresio-erakundeek "gaur egungo arazoei atzoko politikekin aurre egin behar die"²².

Azken finean, 1960tik erregimen diktatorialak izandako aldaketa estrategikoak gehienbat maila instituzionalera eta ekonomikora mugatu ziren. Espainiako ekonomia demokrazia parlamentario egonkorreko gainerako herrialde kapitalistekin homogeneizatu nahi zen, diktadura baten salbuespen politikoari eusten zitzaion bitartean. Diktadura horrek eskubidea tresna gisa erabiltzen zuen "biztanleria disidentearen aurkako indarkeria arautzeko, legitimatzeko eta justifikatzeko"²³, eta ez zuen zalantzarik izango errepresioa aldaketa politikorako edozein asmotara orokortzeko.

Horren harira, adierazgarriak dira Informazio eta Turismoko ministro (1962-1969) eta Barne ministro (1975-1976) izandako Manuel Fraga Iribarnek 1969an eginiko adierazpenak:

"Etsai politikoa da guztietan txarrena. Hain zuzen ere, ez duelako kartera bat lapurtu edo lege bat hautsi nahi, dena hautsi nahi duelako baizik. Horregatik da arriskutsuena eta zorroztasun handienarekin tratatu behar dena. Uste dut hau dela politikaren egia immanentea (...) maiestate krimena [delitu politikoa] da guztietan larriena bere burua errespetatzen duen edozein erregimen seriorentzat"²⁴.

Era berean, azpimarratu behar da ziur aski Hego Euskal Herria, eta bereziki Gipuzkoa, izan zela errepresio frankistak gehien zigortutako lurraldea Estatu mailan;

²² Lurra, 1978, 330. or.

²³ Martínez, 2016, 44-45 or.

²⁴ Manuel Fraga Iribarnek (Informazio eta Turismoko ministroa) Salvador Paniker-ekin 1969an izandako elkarrizketa. Hemendik ateratako informazioa: Celhay, 1976.

horrela sumatzen da behintzat 1960 eta 1975 artean, eta batez ere 1968 eta 1970 artean, aplikatutako hainbat errepresio-motari buruzko azterketatik. Frankismoarekiko aurkakotzaren hazkundeari erantzunez sortutako errepresio-ekintza izan zen, agintariek aurkakotza-mugimendu nagusitzat abertzaleak, komunistak eta sozialistak -eta zeharka, desegonkortasun-gunetzat langile-mundua eta euskal elizako sektore batzuk-zituzten lurralde batean²⁵; lan-aldarrikapenen eta aldarrikapen nazionalen artean lotura handia zegoen lurraldea.

Dena den, berriki Gipuzkoako 1968 eta 1970 arteko aldirako frogatu den moduan, aurkakoen jardueraren eta diktaduraren erantzun errepresiboaren arteko desberdintasuna handia izan zen²⁶. Hau da, akzio-erreakzio-akzio estrategiaren aurrean²⁷, diktaduraren erreakzio errepresiboak askogatik gaingitu zuen izaera biolentoko akzio antifrankista, batez ere, kaltetutako pertsonen kopuruari dagokionez.

²⁵ GPAH, Gobernu Zibilaren Funtsa, c. 3679/0/1.

²⁶ Buces, 2021.

²⁷ Hordago, 1979-1981, 7. liburukia, 514-518 or.

4. Legedia eta errepresio-moduak

Erregimen frankistaren ezaugarri nagusietako bat izan zen bere errepresio-sistema beti Armadaren kontrolpean izan zela²⁸, jurisdikzio militarra diktadura osoan zehar erabiliz motibazio politikoko delituak kudeatzeko organo modura.

Aztertzen ari garen garaiaren laburpen modura, 1943ko Legea, matxinada militarra delituari buruzkoa, eta 1947ko Lege-dekretua "bidelapurreria eta terrorismo delituen errepresioari buruzkoa", 1794/1960 Dekretuan berrikusi eta bateratu ziren. Horrela, jurisdikzio militarrari eskumena eman zitzaion Justizia Militarraren Kodearen arabera eta prozedura sumarisimoen bidez epaitzeko, diktadurarentzat "ordena publikoko barneko nahasmendua, nazioarteko gatazka edo Estatuaren izen ona galtzea"²⁹ suposa zezakeen jarduera politiko oro.

Hala ere, Frankismoko azken urteetako inflexio-puntua izan zen Ordena Publikoaren 45/1959 Legea, eta horrek Ordena Publikoko Epaitegi eta Auzitegien sorrerari buruzko 154/1963 Legearen bidez ondoren izandako garapena³⁰. Lege-esparru berri horrekin indargabetua geratu zen 1960ko dekretuko 2. artikulua, matxinada militarreko delitutzat hartzen zituen "bilerak, batzarrak eta manifestazioak" nahiz "lan-uzteak, grebak, sabotajeak eta antzeko beste ekintza batzuk, helburu politikoa dutenean edo ordena publikoan nahaste larriak sortzen dituztenean"³¹.

²⁸ Babiano, 2018, 119. or.

²⁹ 1794/1960 Dekretua

³⁰ 45/1959 Legea. 154/1963 Legea.

³¹ 1794/1960 Dekretua

Ondorioz, 1963 eta 1977 artean, edozein herrialde demokratikotan baimendutako milaka ustezko delitu politiko (manifestazioak, bilerak, adierazpen askatasuna...) jurisdikzio militarretik salbuespeneko ohikora igaro ziren Ordena Publikoko Auzitegia (gaztelaniaz TOP) abian jarrita.

Hala ere, 1968ko abuztuaren 16an, ETAk Melitón Manzanas atentatuan hil ostean salbuespen-egoera ezarri eta bi astera, diktadura frankistak lehen mailan jarri zuen berriz ere jurisdikzio militarra, 9/1968³² Dekretuaren bidez berraktibatuta aipatutako 2. artikulua.

Beraz, izatez, jurisdikzio militarra 1963 eta 1968 arteko urteetan bakarrik egon zen bigarren mailan, salbuespeneko ohiko jurisdikzioaren atzetik³³. Manuel Ballbé-ren esanetan, "espainiarrak gerra-legearen printzipio definitzaileen menpe guztiz egon ez diren" urteak³⁴.

Neurri horiek euskal esparruan betetzeari dagokionez, Antonio Troncoso kapitainak (Burgosko Prozesuan bokal txostengile izanak) 1976an esan zuen Hego Euskal Herrian, Logroñon eta Burgosen, 1960 eta 1974 artean, guztira, "jarduera separatistak zirela eta sortutako ekintza kriminalekin" erlazionatutako 925 prozesamendu militar izapidetu zirela. Horietatik, 410 Gipuzkoari zegozkion (ondoren Bizkaia zegoen 392 prozesamendurekin, baina biztanle askoz gehiagoarekin)³⁵.

TOPari dagokionez, prozesatuen jaiolekuaren araberrako batezbesteko haztatua egiten bada, lau euskal probintziek lehen lau postuak hartzen dituztela ikusten da, 10.000 biztanleko auzipetu-kopurua kontuan hartuta. Gipuzkoa legoke

³² 9/1968 Lege-Dekretua. Ysàs, 2004, 132. or.

³³ Casanellas, 2014, 20. or.

³⁴ Ballbé, 1983, 426. or.

³⁵ Troncoso, 1976, 189-194 or.

buruan, 625.041 biztanleko batezbesteko biztanleriarekin (adibidez, 1970ean 626.054 biztanle ziren³⁶), prozesatu guztien % 11'2arekin, Bizkaiak % 7'2, Arabak % 5 eta Nafarroak % 4'8³⁷.

Bigarren frankismoko beste ohiko baliabide bat salbuespen-egoerak izan ziren, eta 1945eko *Espainiarren Foruan* jasotako oinarritzko eskubide batzuk etetea oinarritzen ziren. Ordena Publikoaren 1959ko Legearen hirugarren atalak arautua zegoen, 25. eta 34. artikuluen bitartez. Artikulu horiek ahalmena ematen zioten gobernuari salbuespen-egoera onartzeko "ordena publikoa aztoratua egonik, hori berrezartzeko ohiko eskumenak nahikoa ez zirenean"; hasiera batean hiru hilabeteko indarraldia zuten, baina "normaltasuna lortu ez bazen" luza zitezkeen. Halaber, 28. artikulua bidez ezartzen ziren gobernuak errepresio-neurriak aplikatzeko zituen eskumenak:

- "Pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioa debekatzea, bandoan zehaztutako ordu eta lekuetan.
- Babes- edo segurtasun-eremuak zehaztea eta haietan egoteko baldintzak ezartzea, eta leku zehatz batzuetan pertsonen presentzia debekatzea.
- Edozein pertsona atxilotzea, ordena mantentzeko beharrezko ikusten bada.
- Edozein bizileku-aldaketa jakinarazteko exijitzea.

³⁶ EIN, Estatistikako Institutu Nazionaleko dokumentazio-funtsa, I. liburukia, Biztanle-kopurua udalerriko, EIN: Gipuzkoa. Biztanle-errola (2020ko uztailaren 15ean kontsultatua):

<https://www.ine.es/inebaseweb/pdfDispacher.do?td=145036&ext=.pdf>

³⁷ Del Águila, 2001, 270. or.

- Beren aurrekariengatik edo portaeragatik jarduera subertsiboen susmoa sortzen duten pertsonak herritik edo bizilekutik behin behinean lekualdatzea.
- Aurreko paragrafoko zirkunstantziak betetzen dituztenen bizilekuak zehaztea”³⁸.

Gainera, 29. artikuluan aukera ematen zaie gobernu-agintariei aurretiazko zentsura ezartzeko prentsan, irratian eta telebistan³⁹.

1962ko maiatza eta 1975eko apirila bitartean, bederatzi salbuespen-egoera izan ziren Euskal Herrian, horietako hiru Gipuzkoara mugatuak. Salbuespen-egoera horien bidez gehien etendako herritarren eskubideak *Espainiarren Foruko* 14., 15. eta 18. artikuluetan jasotakoak izan ziren. Hau da, bizilekua ezartzeko askatasuna, egoitzaren bortxaezintasuna eta 72 orduko gehieneko atxilotze-aldia ezabatzea (habeas corpus-a ezabatzea suposatzen zuena), probintziako gobernadore zibilei botere handia emanez beharrezkotzat jotzen zituzten errepresio-neurriak erabiltzeko. Horretarako, bere agintepean geratu ziren gorputz polizialak, haien arduradun nagusiekin harreman zuzena eta jarraitua ezartzen zelarik Ordena Publikoko Batzorde Probintzialen bidez (*ad hoc* antolatutako koordinazio-organoak).

Horrek guztiak errepresioa zabaltzea ekarri zuen “ordura arte ia eraginik jasan ez zuten gizarteko zenbait geruzetara”⁴⁰, eta ondorioz, hein batean diktadurak “separatista”, “iraultzaile” eta “traidoretzat” salatutako apaiz disidenteen aurka egindako erasoan oinarritutako

³⁸ 45/1959 Legea.

³⁹ *Ibidem*.

⁴⁰ Letamendia, 1975, 343. or.

gaitzespen soziala⁴¹; baina baita "axolagabeak eta amore ematen dutenak ere, erreakzionatzen ez dutenak eta beren etxeetako erosotasun epela eta beraien kafea nahiago dutenak ..." ⁴². Hitz batean esanda, bereizkuntzarik gabeko errepresioa⁴³.

Jarduera polizialari dagokionez, oso garrantzitsua da kontuan izatea 1941eko Estatuaren Segurtasunerako Legea⁴⁴ eta polizia-zerbitzuak berrantolatzeke Dekretua; horien arauak ezartzen zuten Zaintza eta Segurtasun Zerbitzuak ondorengo instituzioetan sartuta izan behar zutela: Poliziaren Kidego Nagusia, Polizia Armatua eta Trafikoa, Guardia Zibila eta Partiduaren Milizia⁴⁵. Guardia Zibila eta Polizia Armatua gorputz militarrek ziren, diziplina militarren menpekoak, eta horiek guztiek "Segurtasunaren Zuzendaritza Nagusiarengandik jasotako ohar, eskakizun eta aginduei kasu egin" ⁴⁶ behar zieten. Era berean, Poliziaren Kidego Nagusia erregimenaren polizia politikoa bilakatu zen "Nazioaren eta Erregimenaren Segurtasunaren aurkako diren jardura guztiak aztertuz, eta ordena publikoaren nahasmenduak eta politikosozialak ekiditeko" ⁴⁷.

Azken finean, corpus arauemaile hori "Nazioaren bizitzarako ezinbestekoa zen etengabeko zaintza totalean" oinarritzen zen, eta "teknika perfektuaren eta leialtasunaren arteko konbinazio egokiaren bidez lortzen da Estatu totalitarioetan" ⁴⁸; horrek ez zuen ekarri legedi

⁴¹ Martín, 2009, 108. or. Gurruchaga, 1985, 292. or.

⁴² *La Hoja del lunes de San Sebastián*, 1968-8-5.

⁴³ Gurruchaga, 1985, 292. or.

⁴⁴ 1941eko martxoaren 8ko Legea.

⁴⁵ 1941eko abenduaren 31ko Dekretua. Del Águila, 2001, 43. or.

⁴⁶ 1941eko martxoaren 8ko Legea.

⁴⁷ *Ibidem*, hirugarren artikulua.

⁴⁸ *Ibidem*, arrazoien azalpena.

errepublikanoarekin haustea soilik, baita XIX. mendeko tradizio liberal espainiarrarekin haustea ere⁴⁹.

Horren harira, kontuan izan behar da 1882ko Prozedura Kriminalaren Legea (1957, 1959 eta 1960an berrikusia, eta batez ere 1967ko erreforma); horrek agintzen zuen polizia politikoaren betebeharrak bakar bezala ustezko delitu publikoak aztertzea, ustezko "gaizkileak" aurkitzeko beharrezko diligentzia guztiak egitea, "delituaren gauza, tresna edo frogak guztiak jasotzea" eta, azkenik, "Autoritate judizialaren esku jartzea"⁵⁰. Dena den, errealitatean, polizia horrek nahiz Guardia Zibilak kalifikazioak egiten zituzten eta atxilotuak filiazio politiko zehatzetara atxikitzen zituzten, modu horretan atxilotuaren eta delitu-egitatearen funtzio "baloratzailerak" emanez, epaitegien eskuduntzez jabetuz eta atxilotuen deklarazioak lekuko-froga bihurtuz. Horren adibide dira 1968ko abuztuko salbuespen-egoera dekretatu ostean deserriratutako atxilotuei buruz Gipuzkoako Guardia Zibilak idatzitako txostenak⁵¹.

Kontuan izan beharreko beste alderdi bat, azken hirurogei urteetan ustez modu jarraian eta etengabe izandako tortura-praktikak dira, Kriminologiaren Euskal Institutuak (KREI) 2017an argitaratutako txostena kontuan izanez ondorioztatzen dena⁵². 2014ko abenduan jakitera eman ziren, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren aginduz 2014ko ekainean hasitako ikerketa baten emaitzak, 1960 eta 2014 artean Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratutako tortura-kasuak oinarri zituenak. Azken txostenean 4.113 pertsonen kasuak identifikatu zirela adierazten da, "publikoki eta/edo judizialki salatu dutenak

⁴⁹ Babiano, 2018, 79. or.

⁵⁰ 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua.

⁵¹ GPAH, Gobernu Zibilaren Funtza, c. GC-530-GC-531. Buces, 2018.

⁵² Etxeberria, Martín eta Pego, 2017.

Poliziako funtzionario publikoen tratu txarrak eta/edo torturak jasan izana". Guztira, 3.415 pertsonak salatu zituzten torturak, izan ere, % 17ak salatu zuen behin baino gehiagotan jasan zituela mota horretako urraketak. Era berean, Nazio Batuen Istanbuleko Protokoloa ezarri zitzaien 202 pertsonari, eta zuzeneko 500 testigantza jaso dira.

KREIren ikerketa 1960 eta 1975 urteen artera mugatzen badugu, 911 dira dokumentatutako kasuak, Euskal Autonomia Erkidego osoan torturak jasan izanaren -haietako batzuek behin baino gehiagotan- salaketa⁵³ jarri zuten 789 pertsonenak.

Egiletzari dagokionez, torturen salaketa gehienetan atxiloaldian polizia-gorputzek eragindakoak izan zirela aipatzen da, atxilotua instrukzio-epaile baten aurrera eramán aurretik eta inkomunikazio-egoeran zeudela⁵⁴. Beraz, argitu beharra dago, tortura eta antzeko ekintzen larritasuna ez datorrela "funtzionario batek pertsona bati min edo sufrimendu larriak, fisikoak nahiz mentalak, nahita"⁵⁵ eragitetik soilik, baita poliziaren zaintzapean tortura jasandako atxilotuek bere burua erruduntzat jotzea delituaren egozketa-frogatzat hartu zelako eta, ondoren, epaitegiek hori kontuan hartuta zigortu zituztelako. Azken horrek esan nahi du, epaileek ontzat hartzen zituztenez polizia-deklarazioak, torturen bermatzaile zirela.

Baina gainera, poliziaren esku-hartzeek hildakoak eta zaurituak eragin zituzten manifestazioetan, errepideetako kontroletan eta polizia-bulegoetan; batez ere, atxiloketak

⁵³ *Ibidem.*

⁵⁴ *Ibidem.*

⁵⁵ Nazio Batuen Batzar Nagusia: *Pertsona guztiak torturaren eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurka babesteko Adierazpena*. New York. 3452. ebazpena (XXX), Nazio Batuak, 1975eko abenduaren 9a. Nazio Batuen Batzar Nagusia: *Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa*. New York. 39/46 ebazpena, Nazio Batuak, 1984ko abenduaren 10a.

"harrapaketa"⁵⁶ bilakatu zirelako, eta "indarrez, armen erabilera zipitzik ere murriztu gabe"⁵⁷ jarduteko aginduaren ondorioz. José Antonio Sáenz de Santa María Guardia Zibilaren jeneralak gogora ekarri zuen moduan: "poliziak nahiz Guardia Zibilak nahiko erraz sakatzen zioten katuari. Manifestazioak tiroka sakabanatu ohi ziren eta oso ohikoa zen kaleak odolez zikinduta amaitzea (...) Polizia armatua ez zegoen manifestazioetako ordenari eusteko prestatuta, horiek erreprimitzeko baizik"⁵⁸.

1968 eta 1975 artean, erakunde armatuetako gutxienez 25 militante hil ziren "errepresio-ekintza polizial edo judizialean"⁵⁹, eta 45 pertsona hil ziren manifestazioetan jarduketa polizialen ondorioz 1969 eta 1977 artean⁶⁰. Guztira, aipatutako muturreko bi data horien artean (1960 eta 1977 artean) 113 pertsona hil ziren jarduketa polizialean⁶¹.

1960az geroztik, Hego Euskal Herrian polizia-errepresioaren ondorioz izandako lehenengo hildakoa Javier Batarrita Elexpuru bilbotarra izan zen, 33 urteko Lube motozikleta-enpresako langilea. 1961eko martxoaren 27an, hiru polizia-gorpuetako agenteek operatibo bat muntatu zuten "elementu estremistek atentatu terroristen bidez gure Aberrian gauzatzeko asmoa zuten planei" buruz "informazio-zerbitzuen konfidentzia eta berrietan" oinarrituta⁶². Operatibo horretan, agenteek Javier Batarrita Elexpuru eta José Antonio Martín-Ballesterro metrailatu zituzten; lehenengoa

⁵⁶ Babiano, 2018.

⁵⁷ Carlos Iniesta Cano Guardia Zibilaren zuzendariak 1973an emandako agindua. Casanellas, 2014, 143. or.

⁵⁸ Carcedo, 2004, 129. or.

⁵⁹ Casanellas, 2014.

⁶⁰ Babiano, 2018.

⁶¹ *Ibidem*.

⁶² Fernández, *El Español*, 2018-03-27.

hil egin zen eta bigarrena larriki zauritu. Iñaki Egañak 2014an aipatzen zuenez, Batarrita "ETAren sorreraren ostean gatazkako lehenengo biktimatzat"⁶³ har daiteke; izan ere, agenteen operatiboa "atxilotu beharreko terroristen"⁶⁴ aurkako kontrol bat izan zen. Beste era batean esanda, eta arestian aipatu dugun moduan, testuinguru horretan polizia-errepresioak eragindako lehen hildakoa, Eusko Jaurlaritzako Balorazio Batzordearentzat "motibazio politikoko biolentziaren testuinguruan izandako giza eskubideen urraketen biktima" bat dena (eta horrela aitortzen dio Batarritari)⁶⁵. Bilboko epaitegiak absolbitu egin zituen agenteak, eta Auzitegi Gorenak berretsi egin zuen epaia 1965ean. Beraz, mota horretako krimen gehienak bezala, delitua zigorrik gabe geratu zen.

Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak emandako datuei arreta jartzen badiegu, 1960 eta 1975 artean 26 izan ziren indar polizialek eragindako hildakoak, eta horiei talde parapolizialei edo eskuin muturrekoei egotzitako beste bi heriotza gehitu behar litzaizkieke⁶⁶.

Bestetik, *Ahaztuak 1936-1977* elkarteak 2009an idatzitako txostenean, Hego Euskal Herrian 85 hildako zenbatzen ditu, 1961 eta 1977 artean, "errepresio frankistak eragindako arrazoiengatik". 85 pertsona horietatik 52 ez ziren erregimen frankistaren aurkako inolako erakundetakoak; aldiz, militantetzat hartzen diren gainerako 33 haietatik 30 ETakoak ziren, 2 EGIkoak eta 1 AMIkoa⁶⁷.

⁶³ Egaña, *Gara*, 2014-03-27.

⁶⁴ Fernández, *El Español*, 2018-03-27.

⁶⁵ Martín, 2017, 75. or.

⁶⁶ Carmena et al., 2013, 14. or.

⁶⁷ *Ahaztuak 1936-1977*, 2009.

Hala eta guztiz ere, kasu batzuek ezin dira zehazki bizitza-
eskubidearen urraketa gisa katalogatu, ikerketa sakonik egin
ez delako; besteak beste, erregimenaren gorputz
errepresiboen eta aurkaritzat jotzen diren pertsonen arteko
ustezko aurrez aurreko armatuetan hildakoak. Horri
dagokionez, gehienetan diktadura-erregimenaren bertsio
ofizial eta publikoak dirau, eta gainera, polizia-
artxiboetara sartzeko zailtasunak izaten dira. Horregatik,
gertakari horietako gehienak ikerketa sakonagoa behar duten
edo "argitasun gutxi daukaten" kasutzat sailkatu ditu Eusko
Jaurlaritzak⁶⁸.

⁶⁸ Eusko Jaurlaritza, 2014, 83-124 or.

*5. Etxebarrieta kasuaren kontakizun faktikoa
iturriak kontuan hartuz*

Arestian esandakoaren harira, motibazio politikoko biolentziazatik eratorritako, eta emaitza heriotza izandako, argitu gabeko gertakari horietako bat da Txabi Etxebarrietarena; gainera, bertsio kontraerriak daude gertatukoaren inguruko zertzelada zehatzen inguruan.

Polizien esku izandako heriotzen artean kasu paradigmaticoa da hau; batez ere, bi faktorerengatik. Batetik, Etxebarrieta ETako lehenengo biktimagile moduan ageri da eta, era berean, polizia-agenteei hildako lehenengo ETako militante moduan; gainera, hori guztia 1968ko ekainaren 7ko bi ordu eskasetan gertatu zen.

Bestetik, testuinguru horretan jazotako gertakariak argitzeko ikerketa historikoa zein garrantzitsua den adierazten duen adibidea da gertaera hori, baita diktaduraren iturri ofizialak erkatze beharrena eta horien inguruan azken urteetan egiten ari den tratamenduarena ere. Zentzu horretan, kontuan izan behar da kasuak 2018az geroztik izandako oihartzun mediatikoa, hein handi batean, azken hamarkadetako euskal gatazkaren inguruko motibazio politikoko biolentziari buruz izaten ari den dialektikak edo eztabaidak bultzatuta.

Gertaerak 1968ko ekainaren 7an izan ziren, ustez 17:30ak inguruan José Antonio Pardines Arcay Guardia Zibileko agenteak Txabi Etxebarrieta Ortiz eta Iñaki Sarasketa Ibáñez, ETako militanteak, geldiarazi zituenean, Adunako udalerrian, gaur egungo GI-3610 errepidean, gaur egun desagertutako *Yesería Jose María Izaguirre*-ren parean.

Pardines agenteari egindako autopsiaren txostenean auzitegi-medikuak dioenaren arabera (*indar armatu bati eginiko ustezko irain delitua, ondorioa heriotza izan zuena 16/98 auziari atxikita*⁶⁹), bost bala-tiro jaso zituen klabikula azpiko, bihotz aldeko eta ezker hipokondrioko erregioan, lau irteera-zulo eragin zituztenak atzeko planoan⁷⁰. Heriotzaren egiletzari buruz, 16/98 auziak erantzuletzat jotzen zituen arestian aipatutako Etxebarrieta eta Sarasketak, batik bat, gertatutakoaren lekuko partziala izan zen Fermín Garcés Hualderen deklarazioan, eta Guardia Zibilak berak gertaeralekuan egindako begizko miaketan oinarrituta. Hala ere, Sarasketak ukatu egin zuen beti hildako agentea tirokatu izana, bai heriotza-zigorrera kondenatu zuten epaiketan, bai hurrengo hamarkadetan egindako zenbait elkarrizketetan⁷¹.

Ustezko egileek alde egin zuten handik eta Tolosan babestu ziren, Julia Alijostes Artieda eta Eduardo Osa Santibañez senar-emazteen etxean, hain zuzen ere, Pantaleón Zabala kaleko 6.eko, 3.a ezkerreko helbidean. Etxe horretan egon ziren, gutxi gorabehera, 18:00etatik eta 19:00etara, arestian aipatutako Osak lagunduta utzi zutelarik. 55/68 auzian Osak deklaratu zuenez, bere ibilgailuan Lazkaora eramateko eskatu zioten Etxebarrieta eta Sarasketak, baina, N-1 errepidean Bidaniarako bidea (C-6324, gaur egungo GI-

⁶⁹ AIMN, Laugarren Tribunal Militarraren Funtza, Amnistiak, 16/68 auzia. 1945eko Justizia Militarraren Kodearen 310. artikularen bitartez, gerra-kontseiluan prozesatzea eta sei urte arteko espetxe-zigorra ezartzen zitzaion polizia-agente baten agindua "hitzez, idatziz edo zabaltzeko bestelako bidez" betetze ez zuen edozein zibili. Lege-esparru horren babesean bideratu zen 16/68 auzia, José Antonio Pardines eta Txabi Etxebarrietaren heriotzei buruzkoa.

⁷⁰ AIMN, 16/68 auzia. Fernández, 2018, 70. or.

⁷¹ LBF, 55/68 auzia, *ustezko estaltzaile modura Indar Armatuari eginiko iraina eta Indar Armatuari eginiko desobedientzia. Egin*, 1978ko ekainaren 7a. *El Mundo*, 1998ko ekainaren 7a.

2634) hartzen den lekuan, Tolosako Olarrain auzoan⁷², bi guardia zibilek geratu zituzten 19:30ak aldera.

Ordutik aurrera gertatu ziren Txabi Etxebarrietaren bizitzaren amaiera ekarri zuten gertakariak, jarraian aztertuko ditugunak. Dena den, azpimarratu behar da heriotza horren ikerketa ofiziala Pardines guardia bigarrenaren heriotza instruitu zuen 16/98 auziaren zati ere badela. Beraz, instrukzio-epaile militar bera (Pedro Moreno Muñoz komandantea) izan zen bi kasuetako eginbideak egin zituen eta jurisdikzio militarreko mugatutako ikerketa judizialen arduraduna; gainera, Adunan hildako agentearen eta Etxebarrietaren heriotzaren agente erantzuleen gorputz militar berekoa zen.

Azterketa honen xedera mugatuz, hau da, Etxebarrietaren heriotza gertatu zeneko egoera eta zergatiak, nabarmendu beharreko lehenengo gauza da kasu hori ez dela Euskal Autonomia Erkidegoko *Motibazio politikoko indarkeriatik eratorritako giza eskubideen urraketa jasandako biktimei* buruz Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2008an idatzitako txostenean agertzen⁷³.

Bestetik, 2016an Eusko Jaurlaritzak Bilbo eta Tolosako udalerrientzat egindako *argazkiak, herriz herri* agirian, "behar beste argitu ez diren kasuetako" bat bezala aipatzen da⁷⁴; batik bat, bertsio kontraesankorrak jasotzen direlako:

"Guardia Zibilaren bertsioak dio Etxebarrietak bere pistola ateratzea lortu zuela, baina eskutatik kentzea lortu zutela tiro egin aurretik; Sarasketak bere armarekin tiro egin zuenean hasi zela tiroketa, eta

⁷² Leku hori Benta-Haundi izenarekin ezagutzen da, leku horretan ostalaritza-establezimendu bat zegoelako.

⁷³ Landa, 2008.

⁷⁴ Gogora, 2016.

orduan zauritu zela larri Etxebarrieta. Beste bertsio batzuen arabera, ordea, Txabi Etxebarrietaren burua horma baten kontra kolpatu zuten, eta zutitzen saiatzen ari zenean, erdi konortetik gabe, distantzia laburrera egin zion tiro guardia zibil batek⁷⁵.

Dena dela, Etxebarrieta kasuari buruzko ikerketak emaitza erabakigarriak eman ditu azken urteetan, haren argitzeari dagokionez. Hein batean, bi arrazoik bultzatuta: José Antonio Pardines guardia zibilaren heriotza ETaren lehenengo hildakoa izateak ikertzaile batzuentzat hartu duen garrantzia, eta, batez ere, familiaren interesa. Gainera, azpimarratu behar da, Eusko Jaurlaritzaren aipatu txosten horiek geroago aipatuko dugun Etxebarrietaren autopsia ezagutu aurretik egin zirela; hain zuzen ere, 16/68 auzian aurkitzen da haren edukia.

Pardines kasuaren garrantziari dagokionez, 2018an *Pardines, Cuando ETA empezó a matar* liburua argitaratu zen, Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroaren arduradun Gaizka Fernández Sodevilla eta Florencio Domínguez Iribarrenek koordinatutako lana⁷⁶. Argitalpen hori ETAk eragindako lehenengo hildakoan, José Antonio Pardines guardia zibila, zentratzen da, Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboan (gaztelaniaz AIMN) zaindutako 16/68 auzia eskuragarri jartzen den unetik aurrera.

Liburuan esaten da ikerketaren helburua "terrorismoa desmitifikatzea eta biktimak humanizatzea"⁷⁷ dela, eta zehazki esanda Etxebarrietaren irudia desmitifikatu nahi da. Helburu horretatik abiatuta, Etxebarrietaren heriotzari buruz argitalpen horren hirugarren atalean ondorioztatzen

⁷⁵ *Ibidem*.

⁷⁶ Fernández eta Domínguez, 2018, 20. or.

⁷⁷ *Ibidem*.

da, Olarrain auzoan (Tolosa) gertatutakoa "liskarraldi" bat izan zela eta, aldiz, Pardines "odol hotzean" erail zutela, azken horri egindako autopsiatik ondorioztatzen denez.

Etxebarrieta kasuari buruzko ondorio horiek, batez ere gertaeran parte hartu zuten guardia zibilen deklarazioetan oinarritzen dira, baita gorputz armatu bereko agenteek gertaeren lekuan egindako begizko miaketan ere⁷⁸. Hau da, Pardinesen heriotzari buruz idatzitakoan ez bezala, Etxebarrietari dagokionean, aipatutako liburuan ez da inolako aipamenik egiten azken horri egindako autopsiari buruz; gutxienez deigarria iruditzen zaigu hori, izan ere, bi kasuak 16/68 auzi berean aurkitzen baitira.

Ondoren, Etxebarrietaren heriotzari buruzko dokumentazio historikoaren irakurketa partzial horri jarraiki, *Nacional I* (2018) dokumentala eta *La línea invisible* (2020) telesaila egin ziren. Telesail hori estreinatu eta bi hilabete geroago bakarrik, Fernández Soldevillak lehenengo aldiz aipatu zuen, prentsa artikulua batean azaletik, Etxebarrietari buruzko auzitegi-txostena⁷⁹.

Bestalde, familiaren interesari esker Etxebarrietaren heriotzarekin zerikusia duten 16/68 auziko zatiak ikusi ahal izan ditugu. Horietan funtsezko lau gai aurkitzen ditugu⁸⁰:

1. Gertaeren lekuaren begizko miaketa, Guardia Zibilak egina.

⁷⁸ Fernández, 2018, 102-106 or.

⁷⁹ Fernández, *El Correo*, 2020-7-6. Gerora, 2020ko abenduan, egile horrek berak berriz ere Etxebarrietaren autopsia aipatu zuen *Sancho el Sabio* aldizkariaren 43. zenbakian argitaratutako artikulua batean. *El Correo*ko artikuluan bezala, oraingoan ere ez zuen autopsiaren interpretazio-analisirik gehitzen (Fernández, 2020, 56. or.).

⁸⁰ AIMN, 16/68 auzia.

2. Instrukzio-epailearen (Guardia Zibilaren komandantea) txostena.

3. Etxebarrietaren heriotzan parte hartu zuten guardia zibilen deklarazioak.

4. Auzitegi-txostena.

Begizko miaketari dagokionez (ikus I. eranskina), nabarmendu beharreko lehenengo gauza da ekainaren 8ko goizeko 06:00etan egin zela, hau da, gertaeraren biharamunean, Etxebarrietaren gorpua Tolosako San Cosme y San Damián klinikara eramán zutenetik gutxienez 12 ordura. Aldiz, Pardines guardia zibila hil zeneko lekuaren begizko miaketa, gertaera izan eta ordubetera egin zen (ekainaren 7ko 18:30etan).

Era berean, begizko miaketaren idatzian nahiz kasuaren azalpenarenean, Pedro Moreno Muñoz Guardia Zibilaren komandanteak (aldi berean, eginbideen instrukzio-epailea zenak) idatzitakoak biak ala biak, hainbat suzko armari dagozkion kartutxo-zorroak aipatzen dira, ETAko militanteek zeramatzenak eta guardia zibilen armenak; beraz, hori egia balitz, baieztatu egingo litzateke Etxebarrietaren heriotzaren aurretik aurrez aurreko armatu bat izan zela. Gainera, bi idatziak bat datoz gertaera jazotako akueduktuaren horman agertutako odol-orbanak nabarmentzerakoan, "hildako erasotzaileak zeukan zauritik zetozenak".

Modu berean, instrukzio-epaileak bere txostenean azpimarratzen zuen Etxebarrieta eta Guardia Zibil bikoteko burua "gorputzez gorputz borrokatzearen" ondorioz, guardia bigarrenak bere lankidea salbatzera joatea erabaki zuen, hainbat kolpe emanez Etxebarrietari, lurrera erori zen arte.

Lurretik, "bere arma erabiltzen saiatu zen berriz", eta arrazoi horregatik guardia bigarrenak "tiro egin zuen".

Gertaeraren kontakizun hori bat dator guardia bigarrenak egindako deklarazioarekin, honela azaldu baitzuen:

"Hari oldartu beharra izan zuen eta armarekin gorputzeko zenbait zatitan hainbat aldiz jo, lurrera erori zitzaion arma hartzen saiatzen zelarik hura, eta hori lortu zuenez, zenbait tiro egin zituen handik, eta erasoari aurre egiteko tiro egin beharrean izan ziren, lurrean korderik gabe geratu zelarik hura" (ikus II. eranskina, 4., 5. eta 6. irudiak).

Beraz, deklarazio horren arabera, Etxebarrieta lurrean zegoela tirokatu zuten.

Hala ere, guardia bigarrenaren bertsio hori, eginbideen instrukzio-epailearen idatziarekin bat datorrena, bikoteko buruak egindakoaren desberdina da; izan ere, hark adierazi zuen Etxebarrieta lurrera erori zela tirokatua izan ondoren: "... arrazoi horregatik beren armak erabili behar izan zituzten, zibilarenak jotzea ekiditeko, hura lurrera erori zelarik" (II. eranskina, 11., 12., 13. irudiak).

Beraz, Etxebarrietaren heriotzan parte hartu zuten bi guardia zibilen deklarazioak, biak ere ekainaren 7ko 22:45ak eta 23:15ak artean egindakoak, kontraesankorrak dira: lurrean zegoela tirokatu zuten ala tirokatua izan ostean erori zen lurrera?

Azkenik, auzitegi-txostena aipatu behar dugu. Kontuan izan beharreko lehenengo gauza haren idazkera soil da, batik bat

auzitegi-mediku berak idatzitako Pardinesen heriotzari buruzkoarekin alderatzen badugu⁸¹.

Dena den, Etxebarrietari buruzko txostenak "heriotza indarkeriazkoa izan dela" adierazten zuen, gorpuan ikus zitezkeelarik "urradurak ezker eskuan, ebaki eta kolpe zauria eremu okzipitoparietalaren erdialdean, zentimetro bateko bi zauri eskuin besoan, beste bat toraxaren aurrealdean eta hiru eskapulen arteko eremuaren goiko aldean", goitik beherako ibilbidea zuena; beraz, Etxebarrieta, bigarren tiro hori jaso zuenean, muturrez aurrera erortzen ari zen edo lurrean ahuspez zegoen⁸².

Beraz, auzitegi-txostenaren irakurketa horrek are zalantza handiagoak sortzen ditu guardia zibilen deklarazioen inguruan; izan ere, lehenengo tiroa zutik zegoela egin behar izan baitzioten, biktima eta biktimagilea aurrez aurre zeudenean. Hortaz, ez da sinesgarria jada lurrean zegoela tirokatu ziotela, guardia bigarrenak eta instrukzio-epaileak adierazi zuten moduan; izan ere, gainera, bertsio hori ez dator bat hormako odol-orbanarekin. Ondorioz, litekeenagoa da, bikoteko burua zen agenteak adierazi zuen moduan, tirokatua izan ostean erortzea lurrera Etxebarrieta; hori bat letorke autopsian adierazitako lehenengo tiroarekin eta

⁸¹ Baieztapen hori egiten dugu bi txostenetako sinadurak berdin-berdinak direla oinarri hartuta. Halaber, 16/68 auzian, eginbideen instrukzio-epaileak baieztatzen du Tolosako auzitegi-mediku titularrak eta jarduneko lankide batek egin zutela autopsia herri horretan. Ikerketa-talde honek 1968an Tolosan auzitegi-mediku titularra zenarekin harremanetan jartzea lortu du. Dena den, pertsona horrek dio ez duela gogoratzen egun hartan gertaturikoa, eta ukatu egiten du auzitegi-txostenetan ageri den sinadura berea denik.

⁸² Francisco Etxeberria auzitegi-medikuak 2020an emandako interpretazioa (III. eranskina).

hormako odol-orbanarekin. Dena dela, bikoteko buruak egindako gertakizunen kontaketa ez da behin ere aipatzen bizkarretik egindako bigarren tirorik, biktima lurrean edo erortzen zegoela.

Beraz, Etxebarrietaren heriotzan parte hartu zuten agenteen deklarazioetako bat bera ere ez dator bat auzitegi-txostenarekin.

6. Lekukoak eta lekukotzak

Txabi Etxebarrietaren heriotzari buruzko lekuko eta lekukotzei dagokionez, lehenik eta behin, gertaeraren unean berekin ziren bi pertsonen deklarazioak aipatuko ditugu: Iñaki Sarasketak eta Eduardo Osa. Biek deklaratu zuten, bidezko iruditzen zaigu nabarmentzea, atxilotu ondoren torturak eta tratatu txarrak jasan zituztela; beraz, erregimen frankistako polizia-agenteen aurrean egindako lekukotzak gertakizun horrek eraginda eman zituzten.

Atxilotu ostean Iñaki Sarasketak adierazi zuen Etxebarrieta eta agente bat indarka ikusi zituela, azken hori ohartu zenean ETako militanteak suzko arma bat zeramala. Une horretan, Sarasketak bere arma atera zuen "Osak zeraman autoaren atzean makurtu zen guardia destatuz; horrek bere pistola atera zuen, une horretantxe bere aurkaria ere makurtu egin zen eta buelta emanez korrika abiatu zen Errezilgo errepidean aurrera, une horretan tiroketa bat entzun zuelarik"⁸³. Geroago, 1978an, *Egin* egunkarian adierazi zuen Etxebarrieta lurrean ikusi zuela eta guardia zibil bat haren gainean⁸⁴; aldiz, 1998an *El Mundo* egunkariari eginiko elkarrizketan ez zuen gertatutakoa argitzeko balio zuen inolako daturik eman⁸⁵.

Hortaz, 1968an eta ondorengo bi elkarrizketetan, Sarasketak egindako adierazpenetatik bi gauza ondorioztatzen dira. Batetik, ez zuen ikusi Etxebarrietaren bizitzarekin amaituko zuten tiroak egin ziren unea. Bestalde, Sarasketak zeraman arma atera egin zuen, baina ez zuen behin ere erabili;

⁸³ LBF, 55/68 auzia. AIMN, 16/68 auzia.

⁸⁴ *Egin*, 1978-6-7.

⁸⁵ *El Mundo*, 1998-6-7.

adierazpen hori ez dator bat Moreno Muñoz eginbideen instrukzio-epailearen ondorioekin, eta Lasanta Martínez auziaren epaile bereziarenekin.

Osari dagokionez, hark esan zuen 55/68 auziaren instrukzio-fasean (aurrez torturak jasanda eta, jarraian, 7 urteko espetxe-zigorrrera kondenatuta), ikusi zituela Etxebarrieta eta guardia zibila indarka, Sarasketa eta beste agentea armak kargatu nahian babesten ziren bitartean. Jarraian tiro bat entzun zuen, nahiz eta "ezin duen zehaztu nor izan zen lehena" tiro egiten. Geroago, beste tiro batek autoaren kristala jo zuen, eta une horretan ihes egin zuen ezer gehiago ikusi gabe⁸⁶.

Hala eta guztiz ere, deklarazio horretaz gain, Bizitzak argitalpenean, Koldo Alijostesek aitaren, Gregorio Alijostesen, oroitzapenak berreskuratzen ditu, Eduardo Osak (Gregorioren koinata eta Koldoren osaba) Olarraingo gertakarien inguruan kontatutakoari buruz. Zehazki esanda, Gregoriok adierazi zuen, Etxebarrietak gerrian ezkutatuta zeraman arma atera aurretik, guardia zibil batek heldu eta lurrera bota zuela, lankideari "ETAKoak dira!" oihukatzen zion bitartean. Une horretan, beste agenteak Osa eta Sarasketa zeuden autoaren aurka tirokatu zuen, eta ondorioz Sarasketa ibilgailutik atera eta oinez ihes egin zuen. Jarraian, autoari tiro egin zion agentea lankidearengana, Etxebarrieta lurrean neutralizatuta zeukanarengana, hurbildu zen "eta pistola bien artean sartu, biratu, eta Etxebarrieta bertatik bertara tirokatu zuen". Gertakari hori ikusi ostean, Osak bere autoan ihes egin zuen bertatik; beraz, ez zen bigarren tiro baten lekuko izan⁸⁷.

⁸⁶ LBF, 55/68 auzia.

⁸⁷ Alijostes, 2020, 127-128 or.

Beraz, gertatutakoaren lekuko zuzen horren lekukotzatik funtsezko bi ondorio ateratzen dira. Batetik, ETako militanteek ez zutela tiro bat bera ere egin guardia zibilen aurka. Bestetik, kontakizun hori apur bat hurbildu egiten dela instrukzio-epaileak eta guardia bigarrenak emandako bertsiora, lehenengo tiroa Etxebarrieta lurrean zegoenean egin zela ondorioztatzean⁸⁸.

Bestalde, 2019ko maiatzaren 13an, txosten hau idatzi duen ikerketa-taldeak Txabi Etxebarrietaren senideak elkarrizketatu zituen, hain zuzen ere, Kepa Ibaibarriaga eta Aitziber Ibaibarriaga, koinatua eta iloba, hurrenez hurren. Bietako inor ez zen izan gertatutakoaren lekuko, nahiz eta oroimenean gordeta daukaten 1968ko ekainaren 9an Tolosako gorputegira, Etxebarrietaren gorpuzkiak Bilbora lekualdatzeko asmoz, joandako senitartekoen bertsioa. Senitarteko horiek Asunción Ortiz, hildakoaren ama, eta José Antonio eta Angel María anaiak izan ziren.

Kepa Ibaibarriaga eta Aitziber Ibaibarriagaren lekukotzatik azpimarragarriena da neurri handi batean bat datorrela Eusko Jaurlaritzako txostenak aipatzen diren "beste bertsio"⁸⁹ batzuekin; hau da, hasieran indarka jardun ostean, Etxebarrieta horma baten aurka bultzatu zuten burua kolpatu zuelarik, eta orduan jaso zuen lehen tiroa. Jarraian lurrera erori eta bigarren tiroa jaso zuen. Bi tiro guztira. Gainera, kontatzen dute, gorpua jasotzera joan zirenean ekainaren 9an, Etxebarrietaren anaiak eta amak nola ikusi zuten guardia zibil bat eta osasun-langile bat eztabaidatzen auzitegi-txostenaren edukiari buruz eta guardia zibilek tiro egindako distantziari buruz. Gertaera horrek lotura izan dezake medikuaren idatziaren soiltasunarekin, zeinak, hain zuzen

⁸⁸ *Ibidem*.

⁸⁹ Gogora, 2016, 40 or.

ere, ez baitu inolako aipamenik egiten suzko armak erabili zituzten unean biktimaren eta agenteen arteko tarteari buruz⁹⁰.

Era berean, familiaren bertsioak antzekotasun handiagoa du auzitegi-txostenarekin guardia zibilen deklarazioekin baino. Laburbilduz, hormaren kontra kolpatu eta bi tiro: lehena hormaren kontra jotzean (horregatik zeuden odol-orbanak) eta bigarrena atzetik, lurrean zegoela.

Azkenik, 2021eko martxoaren 25ean Paco Gorostegiren lekukotza jaso zen. Tolosar honek adierazi zuen gertatutakoaren lekuko zuzena izan zela, Etxebarrieta tirokatua izan zen lekutik gutxi gorabehera 200 metrora zegoen karrozeria-lantegiaren aurreko kamioien aparkalekuan zegoelako une hartan. Deklarazioan esaten du tiro bakarrak Txabi Etxebarrieta hil zuen agenteak egindakoak izan zirela, eta bizkarretik egin zizkiola. Gainera, Sarasketa oinez eta Osa ibilgailuan ihes egiten ikusi zituen. Dena den, Gorostegi aurkitzen zen puntuaren eta gertakariaren lekuaren arteko distantzia zela eta, ez da baztertu behar lekukoa ez zela jabetu tiro guztien jatorriaz. Nolanahi ere, hildakoa bizkarretik tirokatu zutela baieztatu zuen.

Laburbilduz, Txabi Etxebarrietaren kasuko autopsiak argitzen du gorpuak "eskapulen arteko eremuaren goiko aldean sarrera-zulo batek osatutako"⁹¹ bala-zauri bat zuela, goitik beherako ibilbidearekin, eta horrek adierazten du, arestian aipatu bezala, hildakoa muturrez aurrera erortzen ari zela ala lurrean hauspez zegoela. Beraz, txostenak garrantzi berezia du Etxebarrieta hil zeneko baldintzak argitzeko, babesgabetasun-egoeran bizkarretik tiro bat jaso baitzuen,

⁹⁰ Kepa Ibaibarriaga eta Aitziber Ibaibarriagarengandik jasotako lekukotzak.

⁹¹ AIMN, 16/68 auzia.

hau da, agenteek indarraren neurrigabeko erabilera eginda. Baina, gainera, auzitegi-txostenaren irakurketa hori gehiago dator bat jasotako lekukotzekin gertaeran parte hartutako guardia zibilen deklarazio kontraesankorrekin baino; agente horiek izan ziren gainera, Pardines kidearen hilotza Adunan ikusi zuten lehenengoak, Etxebarrietaren bizitzarekin amaitu baino bi ordu lehenago, gutxi gorabehera.

Dena den, diktadurak berak sortutako dokumentazioak dituen kontraesanak kontraesan, bertsio ofiziala gailentzen da gaur egunera arte. Parte hartutako guardia zibilen deklarazioetan oinarritutako gertaeren interpretazio bat, auzitegi-txostena kontuan izan gabe, eta Etxebarrietaren aurkako tiroak aurrez aurrekoaren ezinbesteko emaitza izan zirela ondorioztatzen duena. Beraz, beste hipotesirik eztabaidatu ez duen bertsioa da.

Txabi Etxebarrietaren heriotzari buruzko gertaeren kronologia

1968-VI-7	
17:30	José Antonio Pardines agentearen heriotza Adunan
18:00 - 19:00	Txabi Etxebarrieta eta Iñaki Sarasketa Osa-Alijostes senar-emazteen etxean babesten dira
19:30	Txabi Etxebarrieta balaz zauritu zuten gertaera Olarrainen
20:00 (gutxi gorabehera)	Txabi Etxebarrietaren heriotza San Cosme y San Damián klinikan, sartu eta 10 minutura
22:05	Etxebarrietaren gauzen eta arropen ikuskapena
22:45	Bikoteko buruaren deklarazioa

23:15	Guardia bigarrenaren deklarazioa
1968-VI-8	
06:00	Etxebarrieta eraila izan zen tokiaren begizko miaketa
1968-VI-9	
08:25	Hilotzaren errekonozimendua Etxebarrietaren senideek eta lekualdatzeko eskaera
09:00 - 10:00	Autopsia egitea
10:00etatik aurrera	- Heriotza-inskripzioa - Etxebarrietaren gorputik ateratako balatxoa jasotzeko agindua eta haren gauzak familiari emateko ezezkoa - Hilotza familiari ematea

7. Etxebarrieta kasuaren azterketa juridikoa

Bizitzaz arbitrarioki gabetua ez izateko eskubidea oinarritzko eskubide bat da, unibertsalki aitortua, eta uneoro eta inguruabar guztietan aplikatu daitekeena. Bizitzaren babesaren intentsitateak inola ere ezin etetea eskatzen du, ezta gatazka armatu batean edo salbuespenezko egoera batean ere. Ondorioz, 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean, 1950eko Giza Eskubideen eta Funtsezko Askatasunen Europako Hitzarmenean eta 1966ko Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Itunean jasotako bete beharreko eskubide bat da.

Laburbilduz, esan dezakegu bizitzeko eskubide horrek babes-betebehar berezia dakarkiela Estatuei, oinarritzko hiru eginbehar dituenak:

- Eskubidearekiko berarekiko begirunea eta, beraz, edozein pertsona bere bizitzaz arbitrarioki ez gabetzeko obligazioa.
- Bizitzarako eskubidearen babes eraginkor berezia, eskubide hori arbitrarioki gabetzea eragozteko behar den ardura modura proiektatzen dena.
- Legez kontrakotzat jo daitezkeen heriotzak ikertzeko betebeharra, biktimari ordaina emanaz eta erantzuleari kontuak ordainaraziz.

Premisa horiek oinarri hartuta, lan honi dagozkion gai eztabaidagarriak juridikoki aztertzeko erabiliko den metodologia da txosten honetan jasota dauden datu faktiko objektiboak eta zalantzarik gabekoak alderatzea, Europako esparruan bizitzeko eskubidearen edukiaren interprete

gorenak eskatutako estandarrarekin⁹². Hortaz, batez ere Giza Eskubideen Europako Hitzarmenera (GEEH) eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) gaiari buruzko jurisprudentziara joko da.

Ildo horretan, bizitza-eskubidea babesten duen GEEHren 2. artikuluko esaldiarekin hasi behar dugu: "*Pertsona orok bizitzeko duen eskubidea Legeak babesten du (...) "*", nahiz eta bigarren atalean indarraren legeko erabilera bermatzen duten hiru salbuespen ezagunak ezartzen dituen: "*2. Heriotza ez da artikuluko honetako arau-haustearekin lotuta egongo erabat beharrezkoa den indarraren erabileraren ondorioz gertatzen denean: a) Pertsona bat legez kanpoko eraso baten aurka babesteko. b) Pertsona bat zuzenbidearen arabera atxilotzeko edo preso bati edo legez atxilotutako bati ihes egitea eragozteko. c) Legearen arabera, errebolta edo matxinada bat zapaltzeko*".

Agindu hori gizaki guztiek bizitzeko duten eskubidea aitortu beharretik abiatzen da, eta horrek bere xedapenak benetako babes eraginkorra sortuz interpretatu eta aplikatzera behartzen du, (McCann eta beste batzuk Erresuma Batuaren aurka).

Hala, eta txosten honi dagokionez, laburbildu dezakegu 2. artikulua lehen atalak, berez, Estatu guztiek bizitzeko eskubidea legez babesteko duten betebeharrak orokor proaktiboa arautzen duela⁹³. Betebeharrak horrek, era berean, Estatu

⁹² Hala ere, egiazki eztabaida juridiko interesgarria sortzen da diktadura bateko erakunde polizial, administratibo eta judizialen legezkotasunari eta zilegitasunari buruz, baita haien egintzen eraginari buruz ere. Bere egintza juridiko guztien erabateko baliogabetasunaren ideia babestu daitekeelarik, baina, kasu honetan, polemikak saihesteko, beste urrats bat eman nahi izan da eta erakunde frankisten jarduerara giza eskubideen ikuspegitik aztertu.

⁹³ Babesa heriotzatik hurbil dauden egoeretara zabaldu da, nahiz eta ez diren gertatu, eta horrek esan lezake eskubide hori urratu egiten dela

betebehar batzuk dakarzkie, bi mailatan, eskubide horri erasaten dioten egoera eztabaidagarrien aurrean:

- (a) Lehenik eta behin, bizitza nahita kentzeko legezko debekua, aipatutako hiru salbuespenetan izan ezik, 2. artikuluko bigarren atalean jasotzen den moduan. Beraz, txosten honi dagokionez, Etxebarrieta hil zeneko gertaerak jarduera debekatutzat eta justifikatu gabetzat jo daitezkeen aztertu behar dugu, edo, aldiz, gobernu-agenteei indarra erabili izana indarra erabiltzea legitimatzen duen salbuespenetakoren batek babesten duen.
- (b) Bigarrenik, erregulazio horren funtsezko izaeratik betebehar prozesal bat ateratzen da: edukia ustez urratu den aztertu behar da (Armani Da Silva Erresuma Batuen aurka). Argitu egin behar da betebehar hori behar bezala bete ote zen Etxebarrietaren bizitza galtzea eragin zuten agenteek jardun ondoren.

Beraz, bi sektore horien azterketa izango da gure azterketa juridikoaren ardatz nagusia. Hortaz, espediente honetatik ondorioztatzen diren egitateetan oinarrituta, saiaturako gara ondorioztatzen ea arrazoizkoa den Txabi Etxebarrietaren oinarritzko eskubideen urraketa onartzen duen ondorioa, aipatutako planoetan, edo horiek urratu izanaren aukera baztertu egin beharko litzatekeen.

Estatuko agenteek gizaki baten bizitza arrisku larrian jartzen dutenean (Makaratzis Greziaren aurka [GC], § 55; Soare eta beste batzuk Errumaniaren aurka, §§ 108-109, Trévalec Belgikaren aurka, §§ 55-61). Gainera, nolahi ere, agenteen erasoak edo tratatu txarrak ere GEEHren 3. artikuluen esparruan koka daitezke.

7.1.- 2. artikulua lehenengo bektorearen azterketa: bizitzeko eskubidearen urraketa.

Lehenik eta behin azpimarratu behar dugu lekukotzen arteko desberdintasunek eta gainerako zailtasun faktikoek ez dutela uzten gertatutakoa guztiz argitzen eta, beraz, ondorio ukaezinetara iritsiko den azterketa juridiko bat egiten.

Zoritxarrez, urte asko igaro direnez, arazo handi bat sortu zaigu, eta horrek dauzkagun aurrekariei (batik bat, agintari frankistek beraiek egindakoak) lotzera eta interpretatzera behartzen gaitu.

Baldintza horiek espediente judizialean jasotako egitateetara eta bildutako lekukotzetara mugatzera behartzen gaituzte, gobernuko agenteek Txabi Etxebarrietaren bizitzaren aurka eskubideak bermatzen ez duen jarduera izan zutela ezartzeko ala baztertzeko. Dauzkagun iturri guztietatik, Tolosako Epaitegiko auzitegi-medikuak egindako autopsia nabarmendu behar dugu. Dena dela, txosten⁹⁴ laburregia da, auzitegi-medikuaren jarduketa bera zalantzan jartzera eraman dezakeena.

Ondorioz, lehen-lehenik epaiz kanpoko exekuzio bat gerta ote zitekeen aztertu behar da. Horrek kontzeptu horretara hurbiltzea behartzen gaitu, haren edukia mugatzen duten nazioarteko testuetan oinarrituz; testu horien artean Nazio Batuek (NBE) babestutako Minnesotako Protokoloa azpimarratu behar dugu. Nazioarteko testu horretan esaten da, epaiz kanpoko exekuzioa dela "heriotza Estatuaren, bere organo edo

⁹⁴ Minnesota Protokoloan (2016) auzitegi-txostenak egiteko jarraitu beharreko irizpideak ezartzen dira, 28-29 or. NBEk babestutako protokolo bat da, legez kanpoko exekuzioak, arbitrarioak eta sumarioak legez ikertzeko. Gomendatutako ereduzko prozedura bat da, legez kanpoko exekuzioak egin diren gizateriaren aurkako krimenak ikertzeko.

agenteen, egintza edo omisioen ondorio izan daitekeenean, edo Estatuari egotz dakioke, bizitzeko eskubidea errespetatzeko betebeharra urratu duelako⁹⁵.

Izendapen horren barruan, adibide modura, Protokoloak bere baitan hartzen ditu ordena-indarren funtzionarioek, edo Estatuaren beste agente batzuek, beharbada eragindako heriotza guztiak; "baita indar militarrek edo segurtasun pribatukoek Estatuaren funtzioak betetzean eragindakoak ere"⁹⁶.

Bigarrenik, GEEAk epaiz kanpoko exekuzio bat izan dela ziurtatzeko ezarritako proba-estandarra aipatu behar dugu; oso zorrotza da, eta egintzak "zentzuzko zalantza orotatik haratago" frogatzea eskatzen du.

Doktrina hori gure kasura aplikatuz, 1968ko ekainaren 7an, Olarrain auzoko (Tolosa) Benta-Haundin gertatutako gertaerei buruz dauden bi hipotesi nagusiak laburbildu behar ditugu, jarraian juridikoki aztertzeke.

7.1.1.- Lehenengo hipotesia: Gobernuko agenteen indarraren erabilera legitimoa.

Lehenengo hipotesiak dio aurrez aurreko bat izan zela eta gobernu-agintaritzaren agenteek indarra legez erabili zutela (nahiz eta hilgarria izan). Bertsio horren arabera, Olarraingo kontrolean izandako gertaerak suzko armen tiroketa baten esparruan gertatu ziren, eta parte hartu zuten agenteak armak erabili beharrean izan ziren beraien biziak babesteko, horrek Etxebarrietaren jakineko heriotza ekarri zuelarik.

⁹⁵ *Ibidem*, 1. or.

⁹⁶ *Ibidem*.

Hipotesi horren indargarri modura, azpimarratu behar dugu gertaeren segidak Sarasketa eta Etxebarrieta armatuta zeudela adierazten duela, eta egun hartan bertan Adunan gertatutakoak ezagunak zirela: haien bila zebiltzan, Pardines agentearen heriotzaren ustezko egile gisa. Polizia-operazioa haren heriotzaren ustezko egileak aurkitu eta atxilotzeko ezarriko zen. Zentzu horretan, Olarraingo (Tolosa) kontrolean geldiarazi zituzten bi guardia zibilak, beren lanean ari zirenak, potentzialki arrisku bizian izan ziren.

Gainera, itxura guztien arabera, aurrez aurreko bat izan zen, nahiz eta haren dinamika zehatzari buruzko ziurtasun gutxiago egon, baina Osa eta Sarasketaren ihesa eta Etxebarrietaren heriotza ekarri zituen. Hortik ondoriozta daiteke ezen, eginbeharra betetzeko eta beren bizitzak arriskuan zeudenez, beharrezkoa izango zutela agenteek beren armak erabiltzea, polizia-kontrolean atxilotutakoen erresistentzia armatuaren aurrean.

Alderdi horiek ofizialki berretsi zituen ikerketak, inplikaturako Guardia Zibileko bi agenteen lekukotzak jaso zituen eta beren bizitzak defendatzeko armak erabili izanaren zilegitasuna eta beharra berronetsi zituen.

Lehen hurbilketa batean, aintzat hartzeko moduko hipotesia irudi luke horrek; izan ere, beren arriskugarritasuna frogatua zuten hiru gizonek, horietako bi armatuak, agintaritzaren agenteen gelditzeko agindua jasoko zuten, eta horiek, gutxiago izanik eta erresistentzia armatu baten aurrean, beren burua defendatzea beste aukerarik ez zuten izan.

Zer gertatu zen benetan dakiten pertsona bakarrak kontrolean zeuden bost pertsonak izango lirateke. Ildo horretan, ikerketa judizialean jasotako bi agenteen deklarazioak hipotesi horren alde agertzen dira.

Gainera, Etxebarrietarekin batera zihoazen beste bi inplikatuak, Osa eta Sarasketa, lekukotza ofizialak ez du baztertzen bertsio ofizial hori. Dena den, bi pertsona horiek ikerketa judizialean (16/68 eta 55/68) egindako adierazpenak tentuz hartu beharrekoak dira; izan ere, poliziaren bertsioa berrestera behartuak izan zitezkeen. Zehazki esanda, ziur gaude Sarasketa eta Etxebarrieta zeramatzan pertsona, Eduardo Osa Santibañez, torturatua eta gerra-kontseilu batean 7 urteko espetxe-zigorrrera kondenatua izan zela⁹⁷. Haren emaztea, Julia Alijostes, ere atxilotua izan zen eta tratu iraingarria jasan zuen Guardia Zibilaren aldetik; geroago, Navas de San Juan (Jaen) herrira erbesteratu zuten⁹⁸. Azkenik, Iñaki Sarasketa, hura ere torturatua, heriotza-zigorrrera kondenatua izan zen gerra-kontseilu batean, nahiz eta ondoren, biziarteko kondenagatik konmutatu zioten.

Hortaz, Eduardo Osa, Iñaki Sarasketa eta Julia Alijostes jurisdikzio militar frankistari men egitera behartuak izan ziren, José Lasanta Martínez gudulari ohi eta Armadako komandante frankistak bideratutako epaiketetan. 1960ko hamarkadatik aurrera, gizabanako horrek monopolizatu zuen jurisdikzio militarren errepresioa Gipuzkoan, Donostian kokatutako eta terrorismo-delituetan espezializatutako antzinako Auzitegi Militarreko 2. Epaitegiaren bitartez. Salaketa-egile batzuen arabera, José Lasanta tortura-kasu

⁹⁷ LBF, 55/68 auzia.

⁹⁸ Buces, 2018, 116-117 or. GPAH, Gobernu Zibilaren Funtza, GC-530-GC-531.

batzuetan nahasia egon zen, eta epaile instruktore gisa, zenbait errepresaliaturen abokatuek osotasun fisikoa, psikikoa eta morala urratzeagatik auzitegietara helarazitako salaketak albo batera utzi izango zituen⁹⁹. Adibide gisa, Julia Alijostesek Lasantari, Juan María Bandres Molet abokatuaren bitartez, helarazitako gutuna errepikatzen dugu jarraian:

“Eskatzen diodana da bihotzez epaitzeko, poliziak atera dizkion deklarazioei [kasurik] egin gabe. Berak esan zidan izugarri jo zutela, eta nik ikusi ez nuen arren, zin dagit Jainkoaren aurrean eta nire senarraren osasunagatik, gau osoan entzun niola negar egiten eta inoiz ahaztuko ez zaidan estutasunarekin geratzen; eta baldintza horietan, ez dago jasango duen pertsonarik eta esaten duena pentsatzen duenik, agintzen diotena berretsi besterik ezin du egin”¹⁰⁰.

Ondorioz, arestian aipatu dugun moduan, epaile frankistek torturapeko polizia-deklarazioak ontzat hartzen zituzten heinean, jarduketa horien bermatzailatzat ere har daitezke.

Gainera, Etxebarrieta kasuaren harira, gobernuko agenteen bertsioa baztertzen den beste lekukotza estraofizial batzuk, zuzenak eta ez-zuzenak, lortu dira.

Bestetik, kontsultatutako informazio ofizialaren egiazkotasunari buruz hausnartzea ere beharrezkoa da, batik bat, aztertzen ari garen gertaeran inplikaturako agenteen gorpu militarizatu bereko lankideek bideratu zituztelako aurretiazko eginbideak. Zehazki esanda, diktadura betean zegoen (izan ere, giza eskubideak ez ziren errespetatzen,

⁹⁹ Etxeberria, Pego eta Pérez, 2018, 176-223. or.

¹⁰⁰ LBF, 55/1968 auzia, *ustezko estaltzaile modura Indar Armatuari eginiko iraina eta Indar Armatuari eginiko desobedientzia*. Donostia, 1968-1969.

eta atxilotuek eta auzipetuek ez zeuzkaten Zuzenbidezko Estatu demokratikoek berezkoak dituzten bermeak) Estatu bateko polizia, epaile nahiz gobernadore zibilek egindako txostenen fidagarritasuna zalantzan jarri behar dugu¹⁰¹. Mikel Aizpuru historialariaren esanetan: "nola zehaztu zein neurritaraino fida gaitezkeen egiaztatu ezin dugun informazio batez, tratatu txar psikiko eta fisikoen bidez giza erresistentzia makurraraztearen bidez lortua izan zitekeena, eta atxilotuen salaketa eta kondenaren frogabide izatea helburu nagusitzat zuena?"¹⁰². Txosten honen edukitik at dagoen gaia izanik, soil-soilik aipatu nahi genuke Memoria Demokratikoaren Lege Aurreproiektuaren¹⁰³ inguruan sortutako eztabaida juridiko bat dela, ebazpen judizial frankisten erabateko deuseztasunaren deklarazioa ere proposatzen duena.

Beraz, zuhurtzia handiz, hipotesi hau egiaztatzeko beharrezkoa da ikerketaren elementu objektiboagoetara jotzea. Zentzu horretan, Etxebarrietaren heriotzaren arrazoiak modu honetan jasotzen dituen auzitegi-txostena azpimarratu behar dugu:

"Gorputegiko mahai gainean (...) gorpu-hipotasiak eta -libidazeak zituen; baita higadura ezker eskuan, ebaki eta kolpe zauria eremu okzipitoparietalaren erdialdean, zentimetro bateko bi zauri eskuin besoan, beste bat toraxaren aurrealdean eta hiru eskapulen arteko eremuan ere. Garezur-barrunbea irekita, aurreko zauriari dagokion infiltratu hemorragikoa ikusten da azalpeko ehun zerularrean. Gainerakoa normal.

¹⁰¹ Fernández, 2018, 99. or.

¹⁰² Aizpuru, 2016, 231. or.

¹⁰³ Ikus proiektuaren edukia hemen:

<https://www.lamoncloa.gob.es/consejodeministros/Paginas/enlaces/200721-enlace-memoria.aspx>

Barrunbe torazikoa irekita, hiru litroko hemopleura bat ikusten da. Kanpoko zuloaren parean, infiltratu hemorragikoa saihets-paretaren aurrealdean. Barrunbe pruralaren erpinean zulaketa-puntu bat ikusten da. Birika-hodiak infiltratu peribaskularrak zulatuta ageri dira. Guztia eskuin hemitoraxari dagokiolarik. Bihotza sistolean.

Sabel-barrunbea irekita, ez da ezohiko ezer ikusten.

ONDORIOAK: Heriotza biolentoa izan dela.

Berehalako arrazoia hemorragia bizia. Berehalako arrazoia birika-hodien haustura. Zuloen izaeragatik bala baten sarrera ondorioztatzen da eskuinaldeko bosgarren saihets arteko espazioan, eskapulen arteko eremuaren goiko aldean irteera duena.

Hamar bat zentimetroko beste ibilbide bat dauka, sarrera eskapulen arteko eremuaren goiko aldean duena, eremu kaudalerantz doana, eta bizkarrezur-hodiari paraleloa; ibilbidearen amaieran bala bat agertu da eta epaile instruktoreari eman zaio".

Beraz, hipotesi honen arabera, guztiak bat datorrela dirudi, agenteen indarraren erabilera legitimoa eta proportzionala izan zen, eraso armatu bati aurre egitera bideratua baitzegoen eta egoerak beharturik jokatu zuten, beraien bizitzak arriskuan baitzeuden azaldutako testuinguruan.

7.1.2.- Bigarren hipotesia: epaiz kanpoko exekuzioa.

Mahaigaineratu behar dugun bigarren hipotesian proposatzen da Txabi Etxebarrieta polizia-kontrollean exekutatua izan zela. Hortaz, txosten honetan jasotako zenbait lekukotzatan

oinarrituta, guardia zibilek tirokatua eta akabatua izan zen, inolako aurrez aurreko armaturik eta haien bizitzek inolako arriskurik izan gabe.

Ikerketa ofizial baten xede inoiz izan ez den hipotesia da, ezta judizialki inoiz proposatua ere agintaritzaren agenteen deklarazioaren alternatiba gisa. Beraz, Etxebarrietarekin zihoazen bizirik irtendako kideen eta gertaeren zeharkako lekukoen testigantzak izan beharko lituzke oinarri. Zentzu horretan, merezi du Gregorio Alijostesen lekukotza aipatzeak. Haren seme Koldo Alijostesek jaso zuen *Bizitzak* liburuan eta hari buruz zera zioen *Argia* aldizkarian:

"Gure osaba [Eduardo Osa Santibañez] hantxe zegoelako. Beti kontatu izan da han Txabi Etxebarrieta eta Iñaki Sarasketa zeudela. Eta guardia zibilak, alegia. Baina beste lekuko bat ere bazen han, ezkutukoa: gure osaba zena. Etxebarrieta hil zuten, eta Sarasketak ere ez zuen jakin zer gertatu zen, larri hartan korrika, ahal zuen moduan eta nola hala alde egin zuen-eta handik. Gure osaba, berriz, autoan zegoen, bera zen txofer. Hantxe zegoen, gertatutakoa bizi izan zuen. Batetik, guardia zibila tiroka, eta Sarasketa, korrika. Bestetik, Etxebarrieta nola hiltzen zuten ikusi zuen. Osabak kontatuta bezala kontatzen zuen gure aitak. Etxebarrieta bertatik bertara hil zutela esaten zuen. Guardia zibil batek Etxebarrieta aurrez aurre helduta zeukala, ez mugitzeko eran, eta beste guardia zibilak, Sarasketak ihes egin zuenean, haiengana joan zela, pistola bi gorputzen artean sartu, arma jiratu eta tiro egin zuela Etxebarrietaren kontra. Halaxe kontatzen zuen beti gure aitak, osabak berari halaxe kontatuta. Hori ez zen inoiz argitaratu, *Bizitzak* liburuan agertu arte. Damutu zitzaidan osabari zuzenean kontu gehiago

ez bildua. Osabak aitari kontatuta jakin nuen... Zenbat historia galdu ditugun! Pena ematen dit".¹⁰⁴

Hau da, Eduardo Osa osabaren lekukotzari buruz ari da, ibilgailuaren gidari posiziotik Txabi Etxebarrietaren odol hotzeko hilketak, Guardia Zibilaren agenteetako batek immobilizaturik zeukala, ikusi izango zuena.

Aldiz, ezin da hipotesi hau ondorioztatu ikerketa judizialean dauden elementuekin, Etxebarrietak bizkarrean jasotako tiroak ematen duen datu arraroa eta gertaeren segidari buruz inplikaturikotako guardia zibilen deklarazioetan dauden kontraesanak, aurreko atalean aztertutakoak, izan ezik.

Dena den, bizkarrean jasotako tiro horrek eta haren ibilbideak ahuldu egiten dute gertaeren bertsio ofiziala, eta indartu egiten dute ordezkoko beste kontakizun bat. Era berean, lehenengo hipotesiak indarra galtzen du Txabi Etxebarrietaren lagunek bertsio ofiziala ez luketela onartuko, deklarazioetan esandakoa zuzenduz, baieztatzen denean.

Gainera, hipotesi hau sendotuz, ikerketa honen barruan Gorostegiren testigantza jaso dugu, eta hildakoak ez zuela tiro bat bera ere egin baieztatzen du. Zentzu berekoa da Etxebarrietaren senideen zeharkako lekukotza.

Arrazoi horregatik, hipotesi honek txosten honetan egindakoa baino ikerketa sakonago eta zabalagoaren beharra dauka; izan ere, zailtasun tekniko izugarriak baititu eta egin ezina ere izan daiteke, gertaeren garaitik urte asko igaro direlako.

¹⁰⁴ <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2757/koldo-alijostes-memoriaren-zaindari-azkarra> helbidean ikusgai.

Zoritxarrez, hipotesi hau baztertu edo ziurtatzeko une egokia gertaeren garaia zen, eta gaur egun, denboraren urruntasuna oztopo gaundiezina bihurtzen ari dela dirudi ikuspegi tekniko eta kriminalistikotik. Dena dela, aurrerago, analisi zehatz bat egingo dugu Etxebarrietaren heriotza argitzeko hasiera eman zitzaion ikerketa ofizialaren kalitateari eta egokitzapenari buruz.

7.1.3.- Bi hipotesien balioztatzea: epaiz kanpoko exekuzioaren aukera.

Dauzkagun froga guztien artean, Txabi Etxebarrietari egindako autopsia elementu garrantzitsua da, eta gorputzak dituen zenbait zauriri buruz hutsuneak dituen arren funtsezko bi datu jasotzen ditu: bi tiro jasoko zituen, tiro bat aurrealdean eta beste tiro bat bizkarrean.

Nolanahi ere, auzitegi-txostenaren beraren hedadura eta edukiari buruz aipamen bat egin behar dugu, ez baitigu eskaintzen egun hartako gertaeren sekuentzia zehatza zein izan zen jakiteko nahikoa elementu. Zentzu horretan, autopsiak gehiago dirudi tramite formal bat gertatutakoaren benetako ikerketa baino, eta espediente judizial berean Pardinesi egindakoaren erabat desberdina da.

Nahiz eta ezin den zuzenean ondorioztatu agintaritzaren agenteen jokabidea zuritzeko txostena denik, ezin dezakegu ahaztu, testuinguru historiko hartan, lan honetan jaso dugun moduan, gobernuko agenteek neurritz gaineke jarduketa ugari sortu zituztela antzeko kontroletan, hildako eta guzti, eta ez zirenak ikerketa independente nahiz eraginkorren xede izan.

Hala ere, autopsia horren xehetasun batek gure arreta pizten du biziki: Txostenaren azken paragrafoa da, eta horrela dio literalki: "Hamar bat zentimetroko beste ibilbide bat dauka, sarrera eskapulen arteko eremuaren goiko aldean duena, eremu kaudalerantz doana, eta bizkarrezur-hodiari paraleloa; ibilbidearen amaieran bala bat agertu da eta epaile instruktoreari eman zaio". Horrek adierazten digu Etxebarrietak tiro bat jaso zuela bizkarrean, goitik beherako ibilbidea zuena eta irteerarik gabea (ikus III. eranskina).

Datu eraldatzaile bat da, aurrez aurreko armatuaren logikatik urruntzen dena eta indargabetu egiten duena; horrek, balioztatu aurretik, 1968ko ekainaren 7 hartan Olarraingo kontrolean gertatutakoari buruz beste hipotesi bat aurkeztera behartzen gaitu.

Bistan denez, garaiko agintariek bakarrik izan zuten gertaeren ezagutza eta ikerketa, kasu askotan gertatzen zen moduan, gehien komeni zitzaien norabiderantz bideratu ahal izango zuten, beraien interesetara egokitutako kontakizun batekin.

Beste alderdi oso garrantzitsu bat da, gertaeren ikerketa judizialari heltzeko, ohiko epaitegiak albo batera utzi eta salbuezpenezko jurisdikzio militarreara jo zela. Ikerketa hori Olarraingo gertaeretan inplikaturako agenteak kide ziren gorputz militarreko arduradun batek, Guardia Zibileko komandante batek, zuzendua eta instruitua izan zen.

Tiroak jaso ondoren, Etxebarrietaren gorputza zein jarreratan geratu zen ere ez dakigu (ondoren ospitalera eramán eta bertan hilko zen); elementu hori oso garrantzitsua izango zen bi tiro horien sekuentziari buruzko interpretazio irmo bat egiteko.

Beraz, egoera honetan, zentzudunak izatea komeni da gure iritziak ematean. Badirudi, tiroetako bat hilgarria izan zela ezinbestean, baina bestea da, bizkarrean jasotakoa, bertsio ofizial osoan inkoherentzia sortzen duena: bateraezina litzateke heriotzaren ezinbesteko arrazoi gisa aurrez aurrekoa aurkezten duen kontakizunarekin, eta epaiz kanpoko exekuzio bat agerian jar lezake. Ildo horretan, benetako datu bat da Etxebarrietak bizkarretik jaso zuela tiroa, gutxienez, makurtuta, erortzen, edo jada lurrean ahuspez zegoela.

Susmo horien aurrean, Etxebarrietaren heriotza judizioz kanpoko exekuzioa izango zela ondorioztatzeko behar den froga-maila aztertu behar dugu.

Haren ustezko existentzia zehaztu ahal izateko, inferentzia aski sendoa, argi eta konkordanteen konstantzia ikusten dugu, baita alderdien jokabidea kontuan hartu ere (Tanis eta beste batzuk Turkiaren aurka, § 160; Tagayeva eta beste batzuk Errusiaren aurka, § 586 eta Kukhalashvili eta beste batzuk Georgiaren aurka, § 148). Horrek, berriro ere, zirkunstantzia historikoetara garamatza, hau da, diktadurara eta gobernuaren jarduna sistema demokratiko baten estandarretatik zeinen urrun zegoen ohartera.

Funtsezko beste elementu bat ere aztertu behar da, alderdi horiek frogatzeko betebeharra nori dagokion definitzea. Eta azpimarratu behar dugu frogaren zama gertatutakoari buruzko azalpen onargarri, egoki eta sinesgarria eman behar duten agintariei dagokiela (Salman Turkiaren aurka [GC], § 100).

Ildo horretan, GEEAk azpimarratu du, heriotza baten zirkunstantzia zehatzak ezarri ezin dituen kasu guztietan, Estatuko agintariei objektiboki egotzi dakizkieken arrazoiengatik, Estatu zehatz horri dagokiola gertaeren

segidari buruzko beharrezko azalpenak modu egoki eta sinesgarrian ematea, eta epaiz kanpoko exekuzioa izan zela babesten duen bertsioa gezurtatu lezaketen frogak sendoak aurkeztea (Mansuroğlu Turkiaren aurka, § 80 eta Carter Errusiaren aurka, § 152).

Modu berean, Estatua funtsezko dokumentazioaren jabe izan eta dokumentazio hori ezkutatzeko duen kasuetan, epaiz kanpoko exekuzio bat frogatzeko beharrezko frogak lortzeko zailtasunak azpimarratu ditu GEEAk, eta horrek tesi horren aldeko ondorioetara iristeko bidea ematen duela (Varnava eta beste batzuk Turkiaren aurka [GC], § 184).

Diktadurak sortutako dokumentazio ofiziala aztertzetik abiatu gara, nahiz eta guztiz legitimoa den haren erabateko baliogabetasuna defendatzea. Izan ere, gertaera hauetan ebazpen horiek guztiak baliogabetzen dituzten elementuak daude. Urte asko igaro direlako, gertaeren ikerketa bat teknikoki ezin denez egin, dokumentazio ofizialean oinarritu gara, nahiz eta bertsio hori zalantzan jartzen duten lekukotzak lortu ditugun (besteak beste, Gorostegirena). Hala eta guztiz ere, azalpenik ez duen elementu frogagarri bat aurkitu dugu, tiro bat bizkarrean, aipatutako ibilbidearekin¹⁰⁵.

¹⁰⁵ Gainera, azpimarratu behar dugu zenbait araudi onartu direla, besteak beste, funtzionario publikoek beren eginkizunetan egindako eskubide-urraketen biktimei erreparazioa emateko. Zentzu horretan, 12/2016 Legea azpimarratu behar dugu, uztailearen 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa. Eta horren aurretik, erkidegoaren esparruari dagokionez, 107/2012 Dekretua, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa; dekretu horretako 2. artikuluan motibazio politikoko biktimatzat hartzen da aldi berean gertatzen badira "Indarkeria funtzionarioek erabili bazuten, pertsonen eskubideak baliatzearen aurka; gizartean eragiteko asmoarekin egin bazen; Zigorgabetasun testuinguru

Inola ere egin ezin dena da ofiziala ez den beste hipotesi bat defendatzen duenari frogaren zama osoa egokitzea, ez baitu benetako aukerarik, ikerketaren esparruan, hori egiaztatzeko.

Autopsiatik ondorioztatzen den egiazko datuaren aurrean, eta presuntzio juridiko horrekin, Txabi Etxebarrietaren heriotza tiroz izan zenaren ebidentzia objektiboa ere kontuan hartuta, beste ikuspegi batetik heldu behar diogu hipotesi horri.

Aztertu behar dugu, halaber, inguruabarrak kontuan hartuta, agenteen jarduna, tiro hori barne, GEEHren 2. artikuluko salbuespenen barruan kokatzeko aukera, konfrontazioaren esparruan indarra erabiltzea ahalbidetzen baitute. Zehazki esanda, eta guri interesatzen zaigunetik, han jasotzen den lehenengo salbuespenari buruz ari gara: *"2. Heriotza ez da artikuluko honetako arau-haustearekin lotuta egongo erabat beharrezkoa den indarraren erabileraren ondorioz gertatzen denean: a) Pertsona bat legez kanpoko eraso baten aurka babesteko"*.

Ez da erantzuteko gai erraza, izan ere, gaiak eztabaida nabaria sortzen du, egiten den gertaeren kontakizunaren arabera eta proposatu ditugun bi hipotesietatik erabiltzen denaren arabera. Dena dela, salbuespen hori, bere buruaren defentsan indarraren erabilera legitimoa ahalbidetzen duena, ezin da inoiz ere zabaldu nahita egindako hilketetara. Izan ere, lege-testuaren irakurketak ez du ahalbidetzen pertsona bat hiltzea, "indarra erabiltzea" baimenduta dauden egoerak

batean egin bazen, eta horrek gertakariak ikertzea edo biktimak aitortzea nahiz haiei egindako kaltea konpontzea zaildu bazuen". Horrek adierazten digu, alderdi horretatik, giza eskubideen urraketa sistematikoak izan zirela eta, horien erreparazioa emateko, besteak beste, arau hori promulgatzea behartu dutela.

deskribatu baino ez du egiten, horrek pertsona bati bizia kentzea ekar dezakeen arren.

Beraz, indarraren erabilerak "guztiz beharrezkoa" izan behar du ezarritako helburuetako bat lortzeko, hau da: "a) Pertsona bat legez kanpoko eraso baten aurka babesteko. b) Pertsona bat zuzenbidearen arabera atxilotzeko, edo preso bati edo legez atxilotutako bati ihes egitea eragozteko. c) Legearen arabera, errebolta edo matxinada bat zapaltzeko". (McCann eta beste batzuk Erresuma Batuen aurka, § 148; Yüksel Erdogan eta beste batzuk Turkiaren aurka, § 86; Ramsahai eta beste batzuk Herbehereen aurka [GC], § 286; Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka [GC], § 17).

Zentzu horretan, GEEAk "guztiz beharrezkoa" terminoaren interpretazioari buruz ematen digun lehen arauak zera eskatzen du: agintaritzaren agenteek indarra erabiltzea legitimatu duen benetako behar sinesgarri bat zegoela frogatzea. Legitimitate hori, GEEHren 8. artikulutik 11. artikulura arteko 2. paragrafoari jarraiki, "gizarte demokratiko batean beharrezkoa" izan dadin helburuarekin zuzenean eta bereizi gabe lotuz. Diktadura baten esparruan ez da gertatzen indarkeria erabiltzeko legitimitate hori.

Nolanahi ere, sistema demokratikoetan (baina ez frankistaren moduko diktatorialetan), Estatuko agenteek indarra erabiltzeak GEEAren bermea jaso du, baldin eta horiek zintzotasunez ikusten bazuten mutur horietara jo izana, une delikatu horretan beren bizitzarako edo hirugarrenen bizitzarako arriskua zegoela uste izan zutelako, nahiz eta gerora agerian geratu oker bat izan zela (McCann eta beste batzuk Erresuma Batuen aurka, § 200, Andronicou eta Constantinou Txipreren aurka, § 192, Bubbins Erresuma

Batuaren aurka, § 138 eta § 139, Huohvanainen Finlandiaren aurka, § 96 eta § 97).

Beraz, azterketa egiteko, aurrez aurre dauden ondasun juridikoen larritasuna eta gobernuko agenteen armen zentzuzko erabilera egiaztatu behar dira¹⁰⁶. Muga gisa ezarriz, ezin dela legitimatu pertsona baten biziraupena ukatzen duen suzko arma baten erabilera hilgarri eta intentziozkoa, inolako egoeratan, beste pertsona baten bizitza galtzea eragozteko bitarteko bakarra ez bada, kasu honetan agintaritzaren agenteena beraiena, zeinaren gainean benetako eta berehalako mehatxua egon behar baituen. Beraz, garrantzitsua da azpimarratzea, armen erabilerak eragiten duen heriotzak beste pertsona baten heriotza galaraztea helburu izango duen bitartekoa izan behar duela.

Arrazoi horregatik, ikerketa ofizialera gehitu ziren gaiez gain, beharrezkoa da polizia-operazioaren, plangintzaren eta kontrolaren inguruko baldintza guztiak aztertzea (McCann eta beste batzuk Erresuma Batuaren aurka, § 150; Ergi Turkiaren aurka, § 79). Izan ere, garrantzitsua izan daiteke indar hilgarria erabiltzea edo ustekabeko bizitzak galtzea ahalik eta gehien murrizteko planifikatu bazen (Bubbins Erresua Batuaren aurka, § 136; Huohvanainen Finlandiaren aurka, § 94).

Azterketa horrek zalantzak sortzen ditu, halaber, gertaeretan parte hartu zuten agintaritzaren agenteen kopuru eskasari eta kontrolaren plangintzari buruz eta, ondorioz,

¹⁰⁶ Legea Betearazteaz Arduratutako Funtzionarioek Indarra eta Suzko Armak Erabiltzeari Buruzko Oinarrizko Printzipioak, Delituaren Prebentzioari eta Delitugilearen Tratamenduari buruzko Nazio Batuen Zortzigarren Biltzarrek onartuak, Habanan (Kuba) 1990eko abuztuaren 27tik irailaren 7ra.

haien jokabideari buruz; guztiok dakigun emaitza izan zuelarik. Defendatzen zaila dirudi, agente baten heriotzaren susmagarriek ihes egingo zuketenez norabideko bidegurutze batean, hain baliabide gutxi egotea eta hain ustekabean jardutea.

Gainera, diktadura-esparrua baldintzatzaile oso garrantzitsua zen. Hasteko, diktadura frankistako polizia indarra eta armak nola erabili behar zituen behar bezala zehazten ez zuen lege- eta administrazio-esparrua zelako (Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka [GC], § 209; Makaratzis Greziaren aurka [GC], §§ 57-59). Era berean, polizia-operazioak ere ez ziren arautzen herritarrentzako berme eraginkor eta demokratikoak zituzten prozeduren arabera, eta horrela ordena-agenteen indar-abusua eragotziz (Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka [GC], § 209; Makaratzis Greziaren aurka [GC], § 58).

Ildo beretik, parte hartu zuten agenteen gaitasunean eta aurrekarien egiaztapenean sakondu dezakegu. GEEAk azpimarratu du agente horiek gaituta egon behar dutela suzko armak erabiltzeko erabateko beharra dagoen egoera bat ebaluatzeko, lege ezarritakoaz gain, giza bizitzarekiko errespetua funtsezko balio gisa lehenesteari buruzko formakuntza argi batekin (Nachova eta beste batzuk Bulgariaren aurka [GC], § 97; Kakoulli Turkiaren aurka, § 110). Zentzu horretan, ebaluatu egin behar da segurtasun-indarrak behar adina prestatuta al zeuden (Sašo Gorgiev Jugoslaviako Mazedonia Errepublika ohiaren aurka, § 51), eta giza eskubideekin begirunez jokatzeko eta armen erabilera zentzuzkoa egiteko trebakuntzarik eta jarraibiderik jaso al zuten (Güleç Turkiaren aurka, § 71; Şimşek eta beste batzuk Turkiaren aurka, § 109; Erdoğan eta beste batzuk Turkiaren aurka, §§ 77-79; Bakan Turkiaren aurka, § 51).

Terrorismoaren aurkako eskala handiko operazioetan ere, GEEAk dio indar hilgarriaren erabilera "erabat beharrezko" diren arauak mugatzen dutela, eta horiek argibide garbiak dituzten arauak eskatzen dituztela; besteak beste, beharrezkoa ez den kaltearen arriskua murrizteko betebeharrak, eta justifikatu gabeko ondorioak dituzten armen eta munizioen erabilera baztertzea (Tagayeva eta beste batzuk Errusiaren aurka, § 595).

Zehazki, auzitegiak azpimarratu du su egin aurretik, ahal den guztietan, ohartarazteko tiro batzuk egin behar liratekeela (Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka [GC], § 177).

Garai hartako erregimenak eta haren agenteek ez zituzten betetzen gai horiek guztiak, haien jarduna giza eskubideekiko errespetuaren edozein estandarretatik aldentzen zen heinean. Are gehiago, ezin da baztertu Estatu frankistako agenteek mendeku-asmorik izan zutenik, egun horretan bertan lankide bat hil zelako, ustez Benta-Haundiko kontrolean geldiarazi zituzten pertsona berberak hilda.

Polizia-kontroletan hildakoak eragin zituzten gertaera ugari izan ziren Franco jeneralaren diktaduran, eta agerian geratzen da FOPEk estandar horietatik urrun jardun zutela. Zentzu horretan, GEEAk bizitzaren aurkako urraketa dagoela ulertzen du, baldin eta poliziari uzten bazaio indar armatuetako edozein kide iheslariren aurka tiro egiten, baldin eta berehala amore ematen ez badu ahozko ohartarazpen bati eta airean egindako ohartarazpen-tiroari erantzunez, egiaztatu baitu ez zegoela berme argirik bizitza arbitrarioki kentzea saihesteko (Nachova eta beste batzuk Bulgariaren aurka [GC], §§ 99-102).

Ohar horiekin guztiekin, gure ustez, proposatu ditugun bi hipotesien artean bereiztean dago gakoa. Gertakariak aurrez aurreko armatutzat jotzeak arazo handi samarra du, sekuentzian egitate objektibo eta zalantzarik gabeko bat egiaztatzen baita: Txabi Etxebarrietak bizkarrean duen tiroa, goitik beherako norabidea duena, eta hari buruzko azalpen onargarririk ez zen eman.

Egia esan, ezagutzen ez ditugun eta ikertu ez diren gertakarien sekuentzia osoaren xehetasun bat ezagutzea eskatzen du tiro horrek, baina hori nekez integratuko litzateke guardia zibilek bizkarreko tiro horri buruz egindako kontakizunarekin, hau da, aurrez aurreko armatu batean zehar izandako ezinbesteko ekintza izan balitz bezala.

Beraz, agintaritzaren agenteekin aurrez aurreko armatua izatea baztertu ez arren, Etxebarrietak sekuentziaren une batean agintaritzaren agenteen bizitza edo osotasun fisikorako mehatxu izateari utzi ziola dioen tesia indarra hartzen ari da (Nachova eta beste batzuk Bulgariaren aurka [GC], § 95; Kakoulli Turkiaren aurka, § 108) eta, dauden datuen arabera, ondorengo hipotesi hau bideragarria litzateke: behin babesik gabe, bizkarretik tiro bat jasoko zuen makurtuta, erortzen edo lurrean ahuspez zegoela.

Beraz, juridikoki, funtsezko gaia armen erabileraren proportzionaltasuna aztertzearen inguruan gertatzen da; izan ere, hasierako une batean justifikatuta egon arren, gehiegikeria edo abusua islatuko luke, gertakariak gertatzen joan ziren arabera. Horrek esan nahi du agenteen egitekoa neurriz gainekoa izan zela eta gertatu behar ez zuen emaitza izan zuela: Txabi Etxebarrietaren heriotza. Tiro horrek ez du arrazoizko azalpenik jasotzen, eta ez da kokatzen

agintaritza-agenteen indarraren legezko, bidezko eta justifikatutako erabileran.

Hortaz, gure ustez, gertaeren sekuentzia zehatza zein den jakin ez arren, autopsiari eta dauzkagun datuei esker ondorioztatu dezakegu aukera handiak daudela Etxebarrieta judizioz kanpo exekutatua izateko; hilgarria izan zitekeen tiroa jaso baitzuen bizkarrean, goitik beherako norabidean, makurtuta, erortzen edo lurrean zegoela.

Gainera, oso litekeena dirudi Txabi Etxebarrieta une horretan indarkeriazko jarduerarik egiten ari ez izatea, ezta polizia-jarduera zuzenean saihesteko edo uxatzeko ekintzarik egiten aritzea ere¹⁰⁷.

Horrek 107/2012 Dekretuaren¹⁰⁸ 2. artikuluko edukiaren esparruan kokatzen gaitu; bertan xedatzen da motibazio politikoko indarkeriatzat hartu behar dela, denbora-esparru horretan gertatutakoa bada eta ondorengo hiru baldintzak batera gertatzen badira (literalki):

- Indarkeria funtzionarioek erabili izana, pertsonen eskubideak baliatzearen aurka.
- Gizartean eragiteko asmoarekin egin izana.

¹⁰⁷ Horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko, 2012ko ekainaren 12ko, 107/2012 Dekretuaren 2. artikulua edukian Txabi Etxebarrieta sartzeari buruz eztabaidatu ahal izango litzateke, agindu horren 5. ataleko salbuespenaren eragin mugatzailerik gabe.

¹⁰⁸ 107/2012 Dekretua, 2012ko ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak ematekoa.

- Zigorgabetasun testuinguru batean egin izana, eta horrek gertakariak ikertzea edo biktimak aitortzea nahiz haiei egindako kaltea konpontzea zailduz.

Adunako gertaerei buruz Etxebarrietari lepora dakizkiokeen gertakariak gorabehera, eta Pardines agentearen heriotzaren egiletzat jo arren, ezin da ondorioztatu indarkeriazko ekintza bat egiten ari zenik edo arma bat erabiltzen ari zenik, beraz, haren heriotza bere bizitzarako eskubidea urratuz gertatuko zen. Informatzaileen iritziz, ez litzateke aplikatu beharko 107/2012 Dekretuko 2. artikuluko 5. atalean ezarritako baztertzea, "indarkeriako jarduerak burutzen" ari ziren biktimei dagokiena "nahiz eta heriotza edo lesioak indarkeria ekintza hori saihestera edo horren aurka egitera zuzentzen ziren ekintzek eragin".

7.2.- 2. artikuluruaren bigarren bektorearen azterketa: Txabi Etxebarrietaren heriotzari buruzko ikerketa judizial eraginkor bat egitearen betebeharraren prozesala.

Era berean, 2. artikuluruaren edukia urratzea inguruabar horietan estatuei ezartzen zaien bigarren betebeharraren baten ondorioz ere gerta liteke, eta hori estuki lotu behar dugu jorratutako lehenengo gaiarekin; indarkeriazko heriotza eragin duten gertaerak ikertzeko eta argitzeko betebeharrari buruz ari gara.

Dauden zalantzen aurrean (besteak beste, dauzkagun datuetatik sortzen direnak), betebeharrari hori bi hipotesiak sakon aztertuz gauzatu behar da eta, beharrezkoa balitz, beharrezko erantzukizunak eta konponketak ezarri.

Ildo horretan, azpimarratzekoa da gertakari horiei buruzko ikerketa judizial eraginkor bat ez dela nahikoa, txosten honen egileok egiaztatu dugun datu bakarretik ere. 50 urtetik gora igaro diren arren, gertaeren lekuko baten lekukotza zuzena jaso dugu, ikerketan agertzen ez dena eta, beraz, inongo baloraziorik izan ez zuena.

Nolanahi ere, ikerketa judizialaren planoa oso mugatuta geratzen da erregimen diktatorialaren ondorioz; izan ere, egitateak modu independentean aztertu ahal izango zituen edozein eskema demokratikotik eta botere-banaketatik urrun zegoen erregimen hori.

Erregimenaren ohiko joera zen, antzeko kasuetan gertatu ohi zen bezala, eta espediente judizial honetan ere ikusten den moduan, nagusitzen zen hipotesiak agenteen jokaera zuzena zuela oinarri, ia arrakalarik gabe. Ikerketak haien bertsioa erabat bermatzen eta berresten du, beste inolako kontakizunik aztertzeari ez zitzaiolarik ekin.

Prozedura horrek urratu egiten du 2. artikuluaaren edukia eta, horregatik, GEEAk ezarri du ikerketa judizialak independentea izan behar duela eta gertakariak argitzera zuzendu behar dela, eta beharrezkoa izanez gero, biktimari erreparazioa emateko erantzukizunak bilatu behar direla (Sinim Turkiaren aurka, § 59; Ciechońska Poloniaren aurka, § 66). Beraz, heriotza hau inguratu zuen benetako ikerketa funtsezko elementua da, estatuko ikerketa-prozesu gisa duen kalitatea, zehaztasuna eta koherentzia baita konfiantza ematen duena edo kentzen duena (Carter Errusiaren aurka, § 98).

Praktikan, gertakari horien testuinguruan eta gobernuko indarrek egindako balizko giza hilketa baten aurrean, gertatutakoaren inguruabarren ezagutza agente horiek beraiek

zuten ezagutzara mugatzen da. Beraz, ikerketa independente eta eraginkor bat abian jarriko ez balitz, ezinezkoa litzateke gertatutakoa argitzea (Makaratzis Greziaren aurka [GC], § 73; Khashiyev eta Akayeva Errusiaren aurka, §§ 120-121). Horregatik eman diegu hainbesteko balioa auzitegi-txostenari eta agiri honen aurreko atalean aztertu ditugun gainerako datu objektiboei.

Nolanahi ere, denbora-tarte luzea igaro denez, orduan egindako ikerketaren kalitateari buruzko azterketari ekitea lan zaila da kontzeptualki giza eskubideen ikuspegitik, diktadura-erregimenaren beraren izaeragatik. Are gehiago, esan genezake giza eskubideen errespetua eta GEEHren 2. artikuluan araututako bizitzeko eskubidea bermatzen ez dituen erregimen bat ez dagoela lan hori egiteko legitimatuta.

Hala ere, kasu honetan sortzen diren eztabaiden aurrean, uste dugu ikerketa independente bat antolatzeke horrelako erregimenen ezintasunari buruzko ondorio orokor bat baino haratago joan behar dugula. Hori dela eta, berariaz aztertzeari ekin behar diogu, ea aplikatu diren GEEAk ezarritako estandarrak antzeko egoeretan gertatutako edozein heriotza ikertzeko betebeharrari buruz (McCann eta beste batzuk Erresuma Batuen aurka, § 161).

Esparru politikoa hori izanik ere ikerketa judizial formal bat izan zela hartu behar dugu abiapuntutzat, eta espediente hori txosten honetan jasota dago. Dena dela, ikerketa hori ohiko jurisdikziotik urrun bideratu zen, jurisdikzio militarrean, hain zuzen ere. Jurisdikzio horrek, gaur egun ere bere ondorioak hedatzen ditu, Espainiako konstituzioaren 117. artikuluen bidez, esparru militarrean, eta salbuespenezkoa izatea zuen ezaugarri. Elementu horrek,

berriz ere, independentzia-notetatik eta inpartzialtasunetik urruntzen du ikerketa judiziala, eta horrek erabat indargabetzen du ikerketa-lanaren garapena.

Gainera, ikerketa judiziala Guardia Zibilaren komandante zen instrukzio-epaile batek zuzendu zuen, eta datu horrek zalantzan jartzen du, berriro ere, ikerketa judizialaren independentzia. Gertakarietan inplikaturako gobernu-agenteen kidego militar bera da, funtzionamenduan hierarkia handia duena.

Organo judizialaren karakterizazioa gorabehera, bere izaeragatik haren independentzia baliogabetuko zukeena, jakin badakigu, autopsiatik eta dauzkagun lekukotzetatik sor zitezkeen zalantzak gorabehera, ikerketa ez zela inoiz bideratu Estatuko agintariek indar hilgarriaren erabileraren legezkotasuna berrikustera.

Dena den, errealitate juridiko hori gorabehera, zehaztasun gehiagorekin aztertuko dugu ea ikerketa horrek GEEAk ezarritako estandarrak bete zituen ala ez.

Estandar horiek eskatzen dute, lehenik eta behin, ikerketaren jarraibide nagusia ikertzaileek gertakarietan inplikaturako pertsonetikiko independentzian datza. Berezik, eginbehar hori indartu egin behar da indar polizialek ustez egindako legez kanpoko exekuzioetan, eta, beraz, ikerketa gobernuaren edo hierarkiaren inolako menpekotasunik gabe egin behar da, eta are urrunago joanda, independentzia praktikoa eskatzen da. (Armani Da Silva Erresuma Batuen aurka [GC], § 232; Mustafa Tunç eta Fecire Tunç Turkiaren aurka [GC], § 222). Horri dagokionez, inguruabarretara jo beharko da ikerketaren independentzia berariaz errespetatu ote zen ebaluatzeko. (Mustafa Tunç eta Fecire Tunç Turkiaren aurka [GC], § 223).

Are gehiago, ikerketaren independentzia- eta inpartzialtasun-mailari buruzko zalantzak daudenean, aztertu egin beharko da independentzia ezak zenbateko eragina izan duen gertakariak argitzea eragozteko orduan (Mustafa Tunç eta Fecire Tunç Turkiaren aurka [GC], § 224).

Testuinguru demokratikoetan, Ministerio Publikoak ikerketan duen jarrera eta poliziarekin duen lotura ere aztertu ditu GEEAk, eta bereziki, adierazi da arazoak sortzen direla polizia-indarrekin lan-harreman estua badago (Ramsahai eta beste batzuk Herbehereen aurka [GC], § 344).

Baldintza hori betetzeari buruzko kasuistika sakona da, GEEAk independentziarik eza azpimarratzen du ikertzaileak, aldi berean, susmagarri potentzialak zirenean (Bektaş eta Özalp Turkiaren aurka, § 66; Orhan Turkiaren aurka, § 342); egile posibleen edo izan daitezkeen zuzeneko lankideak zirenean (Ramsahai eta beste batzuk Herbehereen aurka [GC], §§ 335-341; Emars Letoniaren aurka, §§ 85 eta 95); edo balizko susmagarriekin harreman hierarkikoa zutenean (Şandru eta beste batzuk Errumaniaren aurka, § 74; Enukidze eta Girgvliani Georgiaren aurka, §§ 247 eta hurrengoak).

GEEAk instrukzioa baliogabetzen duen inpartzialtasunik ezari buruz sakondu du, eta interpretatu du ikerketaren jarduera batzuk ere termino horietan kalifikatu daitezkeela, gertakariak argitzeko ikerketa-neurririk ez dagoela egiaztatuz gero (Sergey Shevchenko Ukrainaren aurka, §§ 72-73); begi-bistako eta beharrezko ikerketa-ildo batzuk ez badira esploratzen (Oğur Turkiaren aurka [GC], §§ 90-91); ikerketa susmagarri potentzialen deklarazioetan gehiegi oinarritzen bada (Kaya Turkiaren aurka, § 89). Aldiz, GEEAk bermatu egin zuen ikerketa independente bat zegoela legezko independentzia erabatekoa ez zegoen testuinguruetan, baina

auzitegi militarrek ez zuen lotura zuzen hierarkikorik izan, eta bere jokabide espezifikoak ez zuen inpartzialtasunik islatu ikerketaren erabileran (Mustafa Tunç eta Fecire Tunç Turkiaren aurka [GC], § 254).

Bigarrenik, GEEAk eskatzen du ikerketa judizialak egokia izan behar duela, gertakari garrantzitsu guztiak ebaluatu behar dituela eta hipotesi guztiak aztertu behar dituela, eraginkorra izateko (Lege Baliabideen Zentroa Valentin Câmpeanu-ren izenean Errumaniaren aurka [GC], § 147).

Ez da erraza esparru horretan gertakariak ikertzearen eraginkortasun-eskakizuna definitzea, nahiz eta GEEAk kontuan hartu beharreko zenbait irizpide ezartzen aritu den. Ildo horretan, ikerketak baldintza zehatzetan erabilitako indarra justifikatuta egon zen ala ez zehazteko ahalmena izatea eskatzen da (Ramsahai eta beste batzuk Herbehereen aurka [GC], § 324), eta, ondorioz, erantzuleak identifikatzera eta, hala badagokio, zigortzera zuzenduta egotea (Armani Da Silva Erresuma Batuaren aurka [GC], § 243).

Erabakigarria da gertakariari buruzko frogak ziurtatzea; besteak beste, lekukoen lekukotza, auzitegiko frogak eta, hala dagokionean, lesioen erregistro osoa eta zehatza eta aurkikuntza klinikoan -heriotzaren kausa barne- analisi objektiboa jasoko dituen autopsia. (Armani Da Silva Erresuma Batuaren aurka [GC], § 233).

Emaitza zehatz bat eskatu ez arren, beharrezkoa da ikerketak behar adina baliabide eta bitarteko izatea (Tahsin Acar Turkiaren aurka [GC], § 223; Jaloud Herbehereen aurka [GC], § 186). Integrala, objektiboa eta inpartziala ez den, eta gainera, heriotzaren kausa zehaztera edo bere erantzukizuna esleitzera zuzentzen ez den edozein ikerketa akastun edo desegokik estandar hori hausteko arriskua izango du (Al-

Skeini eta beste batzuk Erresuma Batuen aurka [GC], § 166; Mustafa Tunç eta Fecire Tunç Turkiaren aurka [GC], § 175).

Aztertzen ari garen gertakarien antzeko adibide zehatzak izateko, esan dezakegu GEEAk desegokitzen jo duela poliziak tiroketa bat ikertzea, atxilotze-ahalegin baten emaitza susmagarria hiltzea izan denean; ez denean frogarik egin, esaterako, agenteen eskuak aztertzea tiro-hondakinak detektatzeko; gertakariaren berreraikuntza ez antolatzea; armak edo munizioak aztertzea; zorigaiztoko balak biktimaren gorputzean eragindako traumaren erregistro piktoriko egokirik ez egitea; galdeketa aurretik gertakarian parte hartu zuten ofizialak ez banantzea (Ramsahai eta beste batzuk Herbehereen aurka [GC], §§ 326-332); auzitegi-ikerketa akasdua izan bazen ere (Tanlı Turkiaren aurka, § 153); poliziaren bertsioari eutsi zitzaien, zalantzan jarri gabe (Özalp eta beste batzuk Turkiaren aurka, § 45); edo ikerketa ontzat hartutako poliziak prestatutako txostenean oinarritu zenean (İkincisoy Turkiaren aurka, § 78).

Ikerketa honi eskatzen zaion hirugarren ezaugarria arrazoizko azkartasuna da (Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka [GC], § 305). Zentzu horretan, ikerketa baten moteltasunak ikerketa hori mugatzea ekar dezake, bere arrakastaren aukerak desagertzen baitira (Mocanu eta beste batzuk Errumaniaren aurka [GC], § 337). Ondorioz, GEEAk adierazi du ez dela baldintza hori betetzen ikerketak hainbat urtez luzatzen badira; zehazki, zortzi urte (Kelly eta beste batzuk Erresuma Batuen aurka, § 136), hamahiru urte (Hemsworth Erresuma Batuen aurka, § 74), hamabost urte (Nafiye Çetin eta beste batzuk Turkiaren aurka, § 42) edo hogeita hiru urte (Mocanu eta beste batzuk Errumaniaren aurka [GC], § 348) atzeratzen badira.

GEEAk ikerketa horiei eskatzen dien laugarren betekizuna ikerketen gaineko kontrol publikoa exijitzea da.

Beraz, emaitzak kontrol praktiko eta erreal baten xede izan behar du (elementu guztien publizitatea eskatzen ez den arren), kasuaren inguruabarretara egokitua (Ramsahai eta beste batzuk Herbehereen aurka [GC], § 353; Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka [GC], § 304).

Azken betekizuna da biktimaren senideek ikerketan parte hartzea exijitzea. Kasu honetan, familiartekoek prozedurarako benetako sarbidea izatean oinarritzen da eskakizuna, beren interesen alde (Al-Skeini eta beste batzuk Erresuma Batuen aurka) [GC], § 167). Hala ere, esku-hartze horrek ez du behartzen senideek ikerketari buruz egindako eskaera guztiei erantzutera (Ramsahai eta beste batzuk Herbehereen aurka [GC], § 348; Giuliani eta Gaggio Italiaren aurka [GC], § 304), eta parte-hartzea polizia-eremutik kanpo utz daiteke, eta eremu judizialera murriztu (Hugh Jordan Erresuma Batuen aurka, § 121).

Hala ere, GEEAk uste du baldintza hori ez dela bete, baldin eta: ikerketan familiak ez bazituen dokumentu judizialak eskuratu (Ogur Turkiaren aurka [GC], § 92); ez bazitzaion jakinarazi ikerketan izandako aurrerapen nabarmenei buruz (Betayev eta Betayeva Errusiaren aurka, § 88; Boychenko Errusiaren aurka, § 99); ez bazitzaion ikerketaren bilakaerari buruzko informaziorik eman, eta ez bazuen espedientea behar bezala eskuratu ere (Mezhiyeva Errusiaren aurka, § 75); ez bazioten artxibo-informaziorik eman (Güleç Turkiaren aurka, § 82); mugatu egin bazen familiaren jardun prozesala (Slimani Frantziaren aurka, § 47); edo ikerketako informazioa ezkutatu bazitzairen (Benzer eta beste batzuk Turkiaren aurka, § 193).

Betebehar prozesal horiek gatazka armatuko testuinguruan ere irauten dute (Hanan Alemaniaren aurka [GC], § 204; Georgia Errusiaren aurka (II) [GC] (hondoa), § 326)-txosten honetan agertu ez arren-, egoerara moldatutako erabilerarekin bada ere (Georgia Errusiaren aurka (II) [GC] (hondoa), § 327).

Gure kasura itzulita, aztertutako gertaerak jazotako testuinguru historikoan, ikerketa bera errepresio-erregimen diktatorial batean izan zen, Zuzenbide Estatu demokratiko bati dagokion edozein balio eta bermetatik urrun, inolako botere banaketarik gabe, formala izan ezik. Gainera, ikerketa esparru militarreko salbuespeneko organo judizial berezi batek gauzatu zuen, aipatutako baldintzetan. Ez zegoen inolako bermerik organo judizial independente batek, botere diktatorialaren eraginik gabe eta GEEAk ezarritako estandarrei jarraiki jardunez, benetan gertatutakoari buruzko ikerketa bat egiteko.

Gure txosteneko ikerketari dagokionez, ikerketa-lerro bakarrera mugatu zela egiaztatu daiteke, beste aukerarik aztertu gabe, poliziaren bertsioa berrestera behartuak izan zitezkeen atxilotutako lekukoen inolako eskubide prozesalik errespetatu gabe, integritatea eta bizitza galtzeko arriskupean. Zentzu horretan, azterketa judiziala ez da egokia, gertaerei buruz sortzen ziren zalantzak gorabehera.

Beraz, estandar horietan oinarrituta, ondoriozta dezakegu ikerketa ez zela izan egokia, ez eraginkorra eta ez zituela aztertu azterketa honek helburu dituen gertakarietatik ondorioztatzen ziren hipotesi guztiak.

Etxebarrietaren senideei gertakarien ikerketa judizialean parte hartzen ez zitzaiela utzi ere egiaztatu dezakegu, eta formalki utzi bazitzaien ere, erregimenak haiekiko izan zitzakeen ondorioak argiak ziren eta galarazi egiten zuten

haien parte-hartze aktiboa bere senideari eragiten zieten gertakarien argiketan. Inolako kazetaritza-ikerketarik ere ez zen izan, prentsa-askatasunik ere ez zegoen herrialde batean.

Erregimen diktatorialak Txabi Etxebarrietaren heriotza eragin zuten gertakariak ikertzerakoan betebeharrak ez zituenez bete, ondorioztatzen dugu ikerketa judizialak, jurisdikzio militarrean, ez zituela bete GEEAk betebehartzat ezarrita dituen estandarrak. Hori bere heriotzaren inguruko bere eskubide oinarritzkoenak, eta bere senideenak, urratzea da.

8. Ondorioak eta gomendioak

Txosten honen azterketa juridikoari dagokionez, Txabi Etxebarrietari buruz dauzkagun datuetan zentratuta, zera ondoriozta dezakegu:

1. Aztertutako elementu faktiko eta juridiko guztiak kontuan izanda ondoriozta dezakegu aukera handiak daudela Txabi Etxebarrietaren bizitza-eskubidea zuzenean urratua izateko. Txosteneko datu faktikoek eta agintaritzaren agenteek diktadurapean izandako jokabide zigorgabeak, epaiz kanpoko exekuzio baten biktima izan zenaren tesia sustatzen dute; nazioarteko zuzenbidean onartutako giza eskubideen urraketa larri eta goria, beraz. Suposizio horretan, herritar orok bizitzaz arbitrarioki gabetua ez izateko oinarrizko eskubidearen aurka argi eta garbi eraso eginez; eskubide hori unibertsalki aitortua dago eta une oro eta edozein egoeratan aplikatzen da.

Testuinguru politiko hartan, gobernuaren agenteak ez zeuden giza eskubideekin bateragarria den suzko armen erabilerarako trebatuak, eta inola ere ez zuten jaso prestakuntza egokirik horrelako egoeratan bizitza babesteko. Aurrez aurreko armatu bat izan bazitekeen ere, ditugun datuen arabera, bizkarrean tiro bat egiaztatzen da, Txabi Etxebarrietaren aurkako gehiegikeria eta indarraren legez kanpoko erabileraren adierazle izan daitekeena.

2. Dena dela, Espainiako Estatuko agintariek ez dute bete Txabi Etxebarrietaren heriotzaren inguruabarrak argitzeko ikerketa judizial independente eta eraginkor

bat bultzatzeko betebeharra, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren estandarrak eta haren jurisprudentzia jarraituz. Horrek Txabi Etxebarrietaren eskubideen urraketa dakar GEEHren 2. artikuluaaren edukiari dagokionez. Zentzu horretan, gertakarietan nahasirik zeuden agintaritzaren agenteen erakunde berekoa zen pertsona batek zuzenduriko ikerketak, salbuespeneko jurisdikzio militarrean, ez du objektibitatea ziurtatzen inola ere, eta ezin da Txabi Etxebarrietaren heriotza eragin zuten gertakariak egoki azalduko dituen ikerketatzat hartu, eta horrek ikaragarri areagotzen du epaiz kanpoko exekuzioaren aukera.

3. Txabi Etxebarrietaren heriotza diktadura frankista indar betean zegoeneko testuinguru historikoan kokatu behar da, eta garai haren ezaugarri nagusia zen errepresioa sistematikoki erabiltzen zela herritarren aurka, giza eskubide oinarritzkoenak errespetatu gabe. Horrek eztabaida sutsua dakar ikerketa ofizialaren prozedura osoaren eta emaitzaren egiazkotasunari eta legezkotasunari buruz.

Diktadurako iturri ofizialen fidagarritasun eskasa ez da soilik kontuan hartu behar atxilotutako eta/edo torturatutako pertsonen kasuan, baita heriotza eragin zuten kasu larriagoetan ere, behar bezala argitu gabe uzten baitituzte polizia-gorputz frankisten eskuetan, edo aldeztatik horiek egindako ekintzen ondorioz, hildako pertsonen inguruko gertakariak. Argitzeak, Txabi Etxebarrietaren kasuan adibidez, hildako horietako batzuk giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen ikuspegitik

bizitzeko eskubidearen urraketa baten biktimatzat hartzea ekar lezake.

Txosten hau amaitzeko, ondorengo gomendioak luzatu nahi ditugu:

1. Estatu espainiarraren betebeharrak prozesalak berraktibatzeke aukerari dagokionez, GEEAk aukera hori ezarri du gerora funtsezko elementuren bat sortzen bada; kasu horietan agintariei ikertzeko betebeharra ezarriz (Brecknell Erresuma Batuen aurka, § 71). Kasu honetan, denbora-tartea oztopo oso handia da, dudarik gabe, Benta-Haundin 1968ko ekainaren 7an gertatutakoari buruzko ikerketa bat aktibatzeke. Baina aukera hori bereziki aztertu beharrekoa da, poliziaren bertsioa kontraesanetan jartzen duen lekuko zuzen bat badenez.
2. Beste aukera prozesaleko bat Nazio Batuen sistematik bertatik dator, zehazki 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunetik. Itun horretan, estatu alderdiek konpromisoa hartu zuten oinarritzeko eskubide baten edozein urraketaren aurrean baliabide eraginkor bat bermatzeko. Biztanleria zibilaren aurka zigorgabeki modu sistematikoan jardun zuen diktadura baten barruan, epaiketaz kanpo egindako exekuzio bidezko erailketa-delitu baten aurrean egon gaitezke. Hori gizateriaren aurkako delitutzat jo daiteke, eta, beraz, akzio penalaren preskribaezintasuna ekar dezake. Hori dela eta, azterketa zabalagoa egin behar da erantzuleen aurka kontuak eskatzeko bide judizial bat ireki daitekeen aztertzeko, eta kontuan hartu behar da, halaber, 1977ko Amnistiaren Legearen eragina (urriaren 15eko 46/1977 Legea). Ildo horretan, GEEAk adierazi du

zibilen heriotzari edo tratatu txarrei buruzko amnistia bat ematea Estatuaren betebeharren aurkakoa izango litzatekeela, GEEHaren 2. eta 3. artikuluen arabera, gertakari horiek ikertzea oztopatuko lukeelako eta, ezinbestean, erantzuleen zigorgabetasuna ekarriko lukeelako (Marguś Kroaziaren aurka [GC], § 127).

3. Egiaztatu da Txabi Etxebarrieta ez dela instituzionalki aitortu giza eskubideen urraketen biktimatzat, eta beraz, errekonozimendu- eta erreparazio-mekanismo hori aktibatzea gomendatzen da, urte luze hauetan haren senitarteko eta hurbilekoek jasandako mina konpentsatzeko.

Komeni da txosten hau eta haren eranskin guztiak bidaltzea motibazio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei aitortzeari buruzko legearen (uztailaren 28ko 12/2016 Legea) Balorazio Batzordeari. Lege horren bigarren xedapen gehigarrian, ekainaren 12ko 107/2012 Dekretuak babestu gabeko biktimei atzeraeraginez eta salbuespenez aplikatzea arautzen da (arau hori onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzeko eta biktima horiei ordainak emateko). Hartara, Batzorde horrek espediente honetan lortutako ondorioak berretsi edo aldatu ahal izango ditu, horretarako agintea izanik, eta dagokion prozedura hasi edo, aldezturik hasiz gero, jarraituko da, bere xedapenen arabera.

Donostian, 2022ko ekainaren 7an.

9. Iturriak eta bibliografia

Ahozko iturriak:

- Paco Gorostegi. Donostian, 2021eko martxoaren 25ean.
- Kepa Ibaibarriaga eta Aitziber Ibaibarriaga, 2019ko maiatzaren 19an.

Artxiboak eta dokumentazioa zentroak:

- Administrazioaren Artxibo Orokorra (gazteleraz AGA)
- Barne Ministerioaren Artxibo Orokorra (gazteleraz AGMI)
- Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa (GPAH)
- Ipar-Mendebaldeko Eskualde Militarreko Tarteko Artxiboa (gazteleraz AIMN)
- Euskal Memoria Fundazioa (EMF)
- Kriminologiaren Euskal Institutua (KREI)
- Lazkaoko Beneditarren Fundazioa (LBF)
- Aranzadi Zientzia Elkartea (AZE)

Hemeroteka:

- *ABC*
- *Alderdi*
- *Berria*
- *Egin*
- *El Correo*
- *El Español*
- *El Mundo*
- *Gara*
- *Hoja oficial del lunes de Guipúzcoa*
- *La Vanguardia*

- *La Voz de España*
- *Punto y Hora*
- *Tierra Vasca*
- *Unidad*
- *Zutik*

Webgrafia:

- Espainiako Trantsizioari buruzko Linz artxibo digitala (Juan March Fundazioa):
<https://linz.march.es/>
- Argituz:
<https://argituz.org/>
- Añamendi Eusko Entziklopedia:
<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/>
- Euskal Memoria Dokumentazio Zentroa:
<http://emf.d2ito.com/jopac/controladorconopac?usr=null>
- Eusko Jaurlaritza. Berditasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila:
<https://www.euskadi.eus/retratos-municipales/web01-sllehbak/es/>
- Gogora. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua:
<https://www.gogora.euskadi.eus/aa82-home/es/>
- INE. Estatistika Institutu Nazionala:
<https://www.ine.es/>
- Izuaren mapa (Covite):
<https://mapadelterror.com/>
- Nazio Batuak:
<https://www.un.org/es/>
- Terrorismoari buruzko ikerketen nazioarteko behatokia (gazteleraz OIET):

<https://observatorioterrorismo.com/>

- Euzko-Izpar-Banatzea:
<https://ope.euskaletxeak.eus/>
- Giza Eskubideen aldeko goi-komisarioaren bulegoa (NBE):
<https://www.ohchr.org/EN/pages/home.aspx>
- Legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioek indarra eta suzko armak erabiltzeari buruzko oinarrizko printzipioak (NBE):
<https://www.ohchr.org/es/instruments-mechanisms/instruments/basic-principles-use-force-and-firearms-law-enforcement>
- Minnesotako protokoloa (NBE)
<https://www.ohchr.org/es/special-procedures/sr-executions/minnesota-protocol>
- Europar Batasuna (agiri ofizialak);
https://europa.eu/european-union/documents-publications/official-documents_es
- Ordena Publikoaren Auzitegia (gazteleraz TOP):
https://ddd.uab.cat/pub/tfg/2013/110616/TFG_rsanchezs_avedra.pdf

Lege-xedapenak, nazioarteko agiriak, jurisprudentzia eta beste erabaki batzuk:

- NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIA: *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala*. Paris. 217 A (III) ebazpena, Nazio Batuak, 1984ko abenduaren 10a.
- *Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko Ituna*. New York. 2200 A (XXI) ebazpena, Nazio Batuak, 1966ko abenduaren 16a.
- *Espainiako seigarren aldizkako txostenari buruzko azken oharrak, Eskubide Zibilen eta Politikoen Nazioarteko*

- Ituna. New York. Giza Eskubideen Batzordea (CCPR/C/ESP/CO/6), 2014ko abuztuaren 14a.*
- *Pertsona guztiak torturaren eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurka babesteko Adierazpena. New York. 3452. ebazpena (XXX), Nazio Batuak, 1975eko abenduaren 9a.*
 - *Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa. New York. 39/46 ebazpena, Nazio Batuak, 1984ko abenduaren 10a.*
 - *Delituen eta nagusikeriaren biktimek oinarritzat justizia printzipioei buruzko adierazpena. New York. 40/34 ebazpena, Nazio Batuak, 1985eko azaroaren 29a.*
 - *Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketen biktimek eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsioak aurkezteko eta erreparazioa lortzeko duten eskubideari buruzko oinarritzat printzipio eta jarraibideak. New York. 60/147 ebazpena, Nazio Batuak, 2005eko abenduaren 16a.*
 - *Giza Eskubideen eta Oinarritzat Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmena. Estrasburgo. Kontseilu Europarra, 1950eko azaroaren 4a.*
 - *Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutua. Erroma. Nazio Batuak, 1998ko uztailaren 17a.*
 - *1941eko abenduaren 31ko Dekretua, Polizia berrantolatzeke Legea gauzatzea xedatzen duena. BOE, 65. zk., 1942ko martxoaren 6a.*
 - *Irailaren 21eko 1794/1960 Dekretua, mila bederatziehun eta berrogeita hiruko martxoaren biko Legea eta mila bederatziehun eta berrogeita zazpiko apirilaren hemezortziko Lege-Dekretua berrikusi eta bateratzen dituen. BOE, 231. zk., 1960ko irailaren 26koa.*

- 107/2012 Dekretua, 2012ko ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa. EHAA, 119. zk., 2012ko ekainaren 19koa.
- 426/2013 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa. EHAA, 204. zk., 2013ko urriaren 16koa.
- 1947ko apirilaren 18ko Lege-Dekretua (zuzendua), bidelapurreria eta terrorismo delituen errepresioari buruzkoa. BOE, 126. zk., 1947ko maiatzaren 6koa.
- Abuztuaren 3ko 8/1968 Lege-Dekretua, Gipuzkoako probintzian salbuespen-egoera ezartzen duena. BOE, 187. zk., 1968ko abuztuaren 5koa.
- Abuztuaren 16ko 9/1968 Lege-Dekretua, bidelapurreria eta terrorismo delituen errepresioari buruzkoa. BOE, 198. zk., 1968ko abuztuaren 17koa.
- Urtarrilaren 24ko 1/1969 Lege-Dekretua, Estatu osoan salbuespen-egoera ezartzen duena. BOE, 13. zk., 1969ko urtarrilaren 29a.
- Abenduaren 4ko 14/1970 Lege-Dekretua, Gipuzkoako probintzian salbuespen-egoera ezartzen duena. BOE, 291. zk., 1970eko abenduaren 5a.
- Abenduaren 14ko 17/1970 Lege-Dekretua, Estatu osoan, sei hilabeteko epean, Espainiarren Foruaren 18. artikulua indarraldia eteten duena. BOE, 299. zk., 1970eko abenduaren 15a.

- 1939ko otsailaren 9ko Erantzukizun Politikoen Legea. BOE, 44. zk., 1939ko otsailaren 13a.
- 1941eko martxoaren 8ko Legea, Poliziaren zerbitzuak berrantolatzen dituenak. BOE, 98. zk., 1941eko apirilaren 8a.
- 1941eko martxoaren 29ko Legea, Estatuaren Segurtasunerako. BOE, 101. zk., 1941eko apirilaren 11.
- 1943ko martxoaren 2ko Legea, bizitza publikoan eragin nabarmena duten arau-hauste juridikoak matxinada militarren delituarekin parekatzen dituenak. BOE, 75. zk., 1943ko martxoaren 16a.
- 1958ko maiatzaren 17ko oinarrizko Legea, Mugimendu Nazionalaren Printzipioak aldarrikatzen dituenak. BOE, 119. zk., 1958ko maiatzaren 19koa.
- Uztailaren 30eko 45/1959 Legea, Ordena Publikoari buruzkoa. BOE, 182. zk., 1947ko maiatzaren 6koa.
- Ekainaren 25eko 16/1985 Legea, Espainiako Ondare Historikoari buruzkoa. BOE, 155. zk., 1985eko ekainaren 29koa.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa. BOE, 294. zk., 2018ko abenduaren 6a.
- 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua, Prozedura Kriminalaren Legea onartzen duena. BOE, 260. zk., 1882ko irailaren 17koa.

Bibliografia:

Agirre J. (koor. / coord.), 2010. Gernikako seme-alabak. Euskal Memoria Fundazioa, Andoain.

Ahaztuak, 1936-1977, 2009. Euskal Herria. Oroimena, egia eta justicia. Euskal Herria (1961-1977) txostena. Ahaztuak 1936-1977, País Vasco.

Aizpuru Murua, M., (zuz.), 2007. 1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak. Hernaniko Udala - Alberdania Oroimena, Hernani.

Aizpuru Murua, M., 2016. ¿El primer informe policial de ETA? Los archivos franquistas como fuente para la investigación histórica, Revista de cultura e investigación vasca Sancho el Sabio, 39, pp. 223-251.

Alijostes, K., 2020. Bizitzak. Pamiela, Iruñea.

Alonso, R., Domínguez, F., García, M., 2010. Vidas rotas: La historia de los hombres, las mujeres y los niños víctimas de ETA. Espasa, Madrid.

Amnistia Internacional, 1973. Report on torture. Unwin Brothers Limited, Londres.

Aranzadi, Argituz, Euskal Memoria, 2015. Estructura de una base de datos y diseño metodológico de recogida de información sobre casos de violencia sociopolítica, Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia.

Arrien, G., Goiogana, I., 2002. El primer exilio de los vascos. Cataluña 1936-1939. Fundación Sabino Arana-Fundación Ramón Trias Fargas, Bilbao-Barcelona.

Azurmendi, J. F., 2014. ETA de principio a fin. Crónica documentada de un relato. Ttarttalo, Donostia.

Babiano Mora, J. et alii, 2018. Verdugos impunes. El Franquismo y la violación sistemática de los derechos humanos. Ediciones Pasado y Presente, Barcelona.

Baby, S., 2018. El mito de la transición pacífica. Akal, Madrid.

Ballbé, M., 1983. Orden público y militarismo en la España constitucional. Alianza Editorial, Madrid.

Ballester, D., 2022. Las otras víctimas. La violencia policial durante la Transición (1975-1982). Prensas de la Universidad de Zaragoza, Zaragoza.

Buces Cabello, J. et alii, 2018. 1968. Gipuzkoa en estado de excepción. Aranzadi, Donostia.

Buces Cabello, J., 2021. Oposición, represión y graves violaciones de derechos humanos en Gipuzkoa en 1970. Tesis doctoral. EHU/UPV.

Capellà, M., Ginard, D. (coord.), 2009. Represión política, justicia y reparación. La memoria histórica en perspectiva jurídica (1936-2008). Documenta Balear, Palma.

Carcedo, D., 2004. Sáenz de Santa María: el general que cambió de bando. Temas de Hoy, Madrid.

Carmena, M. et alii, 2013. Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketei buruzko oinarritzko txostena(1960-2013). Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Casanellas, P., 2014. Morir matando. El Franquismo ante la práctica armada. 1968-1977. Los libros de la Catarata, Madrid.

Casanova, I., 2007. ETA. 1958-2008. Medio siglo de historia. Txalaparta, Tafalla.

Celhay, P., 1976. Consejos de guerra en España: fascismo contra Euskadi. Ruedo Ibérico, París.

De Pablo, S., 2002. La dictadura franquista y el exilio, en De la Granja, J. L. y De Pablo, S. (coord.), Historia del País Vasco y Navarra en el siglo XX, pp. 89-116, Biblioteca Nueva, Madrid.

De Pablo, S., 2018. Tiempo de contrastes. El País Vasco en la década de 1960, en Fernández Soldevilla, G., Domínguez Iribarren, F. (coords.). Pardines. Cuando ETA empezó a matar. Capítulo 2, pp. 39-75. Tecnos, Madrid.

Egaña, I., 2011, Frankismoa Euskal Herrian. Behin betiko konponbidea. Euskal Memoria Fundazioa, Andoain.

Etxeberria, F., Martín, C. y Pego, L., 2017. Euskadin gertatutako tortura eta tratatu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014). Azken txostena. Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia, Gasteiz.

Fernández Soldevilla, G., 2018. A sangre fría. El asesinato de José Antonio Pardines (y sus antecedentes)", en Fernández Soldevilla, G., Domínguez Iribarren, F. (coords.): Pardines. Cuando ETA empezó a matar. Capítulo 3, p.77-128. Tecnos, Madrid.

Fernández Soldevilla, G., 2020. "¿Crímenes ejemplares? Prensa, propaganda e historia ante las primeras muertes de ETA", Sancho el Sabio, 43, pp. 49-71.

Fernández Soldevilla, G., Domínguez Iribarren, F., 2018 (coords.). Pardines. Cuando ETA empezó a matar. Tecnos, Madrid.

Fusi, J. P., 2017. Los años 60: Los años de ruptura; en Fusi J. P., Pérez, J. A. (eds.). Euskadi 1960-2011.

Dictadura, transición y democracia, PP. 53-72.

Biblioteca Nueva, Madrid.

Fusi J. P., 2018. El País Vasco durante el franquismo: una visión general, Cuadernos de Alzate: revista vasca de la cultura y las ideas, 50-51, pp. 53-72.

Hernández Burgos, C., Del Arco Blanco, M. A., 2011. Más allá de las tapias de los cementerios: la represión cultural y socioeconómica en la España franquista (1936-1951), Cuadernos de Historia Contemporánea, 33, pp. 71-93.

Eusko Jaurlaritza, 2014. 2. Iragana argitzea, Eusko Jaurlaritzak, 2012-2016 Legegintzaldian, bake eta bizikidetzaren arloan sortutako dokumentuen bilduma. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Gogora, 2016. Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri. Tolosa, 1960-2010. Gasteiz. Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia. Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

González Madrid, D., 2012. Violencia política y dictadura franquista, en Dissidences. Hispanic Journal of Theory and Criticism, 3, pp. 1-55.

Gurrutxaga, A. 1985. El código nacionalista vasco durante el Franquismo. Anthropos, Barcelona.

HALIMI, G., 1972. El Proceso de Burgos. Monte Ávila, Caracas.

Hordago, 1979-1981. Documentos Y. Recopilación de publicaciones y documentos internos de ETA. Lur, Donostia.

Ibarra Güell, P., 1987. El movimiento obrero en Vizcaya: 1967-1977. Ideología, organización y conflictividad. Servicio Editorial, Universidad del País Vasco, Leioa.

Jauregui, G., 2000. ETA: orígenes y evolución ideológica y política, en Elorza, A. (coord.), La historia de ETA. Madrid. Ediciones Temas de Hoy, pp. 171-276.

Juliá, S., 1999. De guerra contra el invasor a guerra fratricida, en Juliá, S. (coord.), Víctimas de la Guerra Civil, pp. 1-23, Temas de Hoy, Madrid.

Landa Gorostiza, J. M., 2008. Txostena: Indarkeria politikoaren ondorioz izandako giza eskubideen urraketen biktimak. Giza Eskubideen Zuzendaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Lasagabaster Herrarte, I. y Angoitia Gorostiaga, V., 2021. Artículo 2. Derecho a la vida, en Lasagabaster Herrarte, Iñaki (dir.), Convenio Europeo de Derechos Humanos, Comentario sistemático, Editorial Civitas, pp. 23-45.

Letamendia, F., 1975. Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA. Ruedo Ibérico, París.

Lurra, 1978. Burgos: juicio a un pueblo. Hordago, Donostia.

Majuelo Gil, E., 2020. El historiador ante el pasado vasco (no tan) reciente, Segle XX. Revista catalana d'història, 13, pp. 283-296.

Martín Beristain, C. (koord.), 2017. Ahanzturatik ateratzen. Balorazio Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketari eta bestelako sufrimendu bidegabeen buruzkoa.

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza.
Lehendakaritza. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Martínez Zauner, M., 2016. "La comuna" de los presos: memorias de la resistencia en el tardofranquismo. (Tesis doctoral). Universidad Autónoma de Madrid, Madrid.

Núñez, L. C., Egaña, I., (coords.), 1993-2007. Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad. Txalaparta, Tafalla.

Pérez Pérez, J. A., 2005. El Segundo Franquismo en el País Vasco (1951-1975), en Barruso Bares, P. y Lema Pueyo, J. A. (coord.), Historia del País Vasco. Historia Contemporánea (siglos XIX-XX), pp. 315-390, Hiria Liburuak, Donostia.

Preston, P., 1994. Franco, "Caudillo de España". Grijalbo, Barcelona.

Sainz González, J., 1993. Testimonio de un policía español. Madrid. Editado por familiares del autor. Madrid.

Santamaría Arinas. R.J., 2021. Artículo 3. Prohibición de la tortura en Lasagabaster Herrarte, Iñaki (dir.), Convenio Europeo de Derechos Humanos, Comentario sistemático, Editorial Civitas, pp. 26-80.

Santolaya Machetti, P. y García Roca, F.J. (coords.), 2005. La Europa de los derechos: el Convenio Europeo de Derechos Humanos. Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (España), Madrid.


Troncoso de Castro, A., 1976. España: 40 años polémicos. E.A.S.A., Burgos.

Ysàs, P., 2004. Disidencia y subversión. La lucha del régimen franquista por su supervivencia. 1960-1975. Crítica, Barcelona.

Wihelmi, G., 2016. Romper el consenso. La izquierda radical en la Transición española (1975-1982). Siglo XXI de España, Madrid.


ERANSKINAK

I. ERANSKINA. Eszenaren krokisa, jatorrizko txosten polizialaren atala.




II. ERANSKINA. Guardia Zibilaren agenteen bertsioen adierazpen grafikoa.

Guardia bigarrenaren bertsioa



1. irudia


- | | |
|----------------------|---------------------|
| ① Txabi Etxebarrieta | ① Bikoteko burua |
| ② Iñaki Sarasketa | ② Guardia bigarrena |
| ③ Eduardo Osa | |




2. irudia



3. irudia



4. irudia



5. irudia




6. irudia

Ez dakigu zein agentek geldiarazi zuen ibilgailua eta zein geratu zen Etxebarrietaren gorpuaren ondoan.


Bikoteko buruaren bertsioa




7. irudia



8. irudia




9. irudia




10. irudia



11. irudia




12. irudia



13. irudia

III. ERANSKINA. Txabi Etxebarrietaren gorputzari egindako tiroen adierazpen grafikoa, Paco Etxeberria doktoreak egin.



Segundo disparo

